

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA

FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**Kulturartekotasunaren trataera eta
lanketa Haur Hezkuntzan, hezkuntza
emozionalaren bitartez.**

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Temprano Correa, Paula.

Zuzendaria: Antonio Agirre, Iratxe.

2022-2023

Haur Hezkuntzako Gradua

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honek, Haur Hezkuntzan kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionala lantzearen beharra defendatzen du. Izan ere, aurrekari teorikoek dioten moduan, erabiltzen dugun materiala orokorrean arrazista, estereotipatua eta etnozentrikoa da. Ez hori bakarrik, hezkuntza emozionalari dagokionez, hau gelan lantzeak gatazkei, indarkeriari, estresari edo depresioari aurre egiteko konpetentziak eskaintzen ditu. Gauzak horrela, lan honen helburuak hurrengoak dira: (1) Haur Hezkuntzan kulturartekotasunaren lanketa hezkuntza emozionalaren bidez nola gauzatzen den aztertzea; eta (2) bi termino horiek lantzeko *Elkarlanetik ikasiz* proiektua diseinatzea. Hori horrela izanik, 28 partaidek online gauzatutako formulario bat bete dute. Formulario horretan ikusitako beharren araberrako proposamen didaktikoa diseinatu da ondoren. Emaizak direla eta, kulturartekotasunaren trataera hezkuntza emozionalaren bidez eskolan ematen denari dagokionez, ahaztua eta gogorra dela zehaztu dute irakasleek. Baita baliabide falta nabaritzen dutela ere. Erantzun horietan oinarrituta, *Elkarlanetik ikasiz* programa sortu da, 26 saioetan norberaren emozioak hobeto ezagutzeko eta besteenak hobeto identifikatzeko gai izatea, bai eta kultura ezberdinekiko errespetua eta horiekin harremantzeko gaitasuna garatzea bilatzen da, besteak beste. Horretarako, baliabide ezberdinak erabili dira, horien artean, musikaltasuna, dramatizazioa, sukaldaritza eta liburuak. Ondorioetan, irakasleek formularioan aurkeztutako kezkek baloratu izan dira eta proposamen didaktikoaren mugei aurre egiteko hobekuntzak plazaratuko dira. Hala eta guztiz ere, lan honek bere baitan hartzen duen *Elkarlanetik ikasiz* programa berritzailea dugu, zeinak irakasle jarduna kulturartekotasun testuinguruetan laguntzeko baliabideak esakintzen dituen.

Hitz gakoak: Hezkuntza Emozionala, Kulturartekotasuna, Haur Hezkuntza, proposamen didaktikoa.

Resumen

Este Trabajo de Fin de Grado defiende la necesidad de trabajar la interculturalidad y la educación emocional en la Educación Infantil. De hecho, como los antecedentes teóricos dicen, el material que utilizamos es generalmente racista, estereotipado y etnocéntrico. No sólo eso, en cuanto a la educación emocional, trabajar esto en el aula ofrece competencias para afrontar conflictos, violencia, estrés o depresión. Así las cosas, los objetivos de este trabajo son (1) analizar cómo se lleva a cabo la elaboración de la interculturalidad en la Educación Infantil a través de la cohesión emocional; y (2) diseñar el proyecto *Elkarlanetik ikasiz* para trabajar ambos términos. Así, 28 participantes han cumplimentado un formulario on-line. Posteriormente, se ha diseñado una propuesta didáctica en función de las necesidades observadas en dicho formulario. En cuanto a los resultados, el tratamiento de la interculturalidad en lo que se refiere a lo que se da en la escuela a través de la educación emocional, los profesores precisan que está olvidado y es duro. También notan la falta de recursos. En base a estas respuestas, se ha creado el programa *Elkarlanetik ikasiz*, que en 26 sesiones busca conocer mejor las propias emociones y ser capaz de identificar mejor las de los demás, así como desarrollar el respeto y la capacidad de interrelación con las diferentes culturas, entre otras cosas. Para ello, se han utilizado diferentes recursos, entre ellos, musicalidad, dramatización, cocina y libros. En las conclusiones se han valorado las inquietudes presentadas por el profesorado en el formulario y se introducen mejoras para hacer frente a los límites de la propuesta didáctica. No obstante, contamos con un programa innovador, *Elkarlanetik ikasiz*, que recoge los recursos para apoyar la práctica docente en contextos de interculturalidad.

Palabras clave: Educación Emocional, Interculturalidad, Educación Infantil, propuesta didáctica.

Abstract

This Final Degree Project defends the need to work on interculturality and emotional education in Early Childhood Education. In fact, as the theoretical background says, the material we use is generally racist, stereotyped and ethnocentric. Not only that, as far as emotional education is concerned, working this in the classroom offers competences to face conflicts, violence, stress or depression. Thus, the objectives of this work are (1) to analyze how the elaboration of interculturality is carried out in Early Childhood Education through emotional cohesion; and (2) to design the *Elkarlanetik ikasiz* project to work on both terms. Thus, 28 participants filled in an on-line form. Subsequently, a didactic proposal was designed based on the needs observed in the form. As for the results, the treatment of interculturality in terms of what is given at school through emotional education, teachers specify that it is forgotten and hard. They also note the lack of resources. Based on these responses, the *Elkarlanetik ikasiz* program has been created, which in 26 sessions seeks to better know one's own emotions and be able to better identify those of others, as well as to develop respect and the ability to interrelate with different cultures, among other things. For this purpose, different resources have been used, among them, musicality, dramatization, cooking and books. In the conclusions, the concerns presented by the teachers in the form have been evaluated and improvements are introduced to face the limits of the didactic proposal. Nevertheless, we have an innovative program, *Elkarlanetik ikasiz*, which gathers resources to support teaching practice in intercultural contexts.

Key words: Emotional Education, Interculturality, Early Childhood Education, didactic proposal.

Aurkibidea

Sarrera	1
Marko teorikoa	3
Adimen Emozionala	8
Metodoa	11
Emaitzak	13
Kulturartekotasunaren trataera hezkuntza emozionalaren bidez eskolan	13
Elkarlanetik ikasiz proiektuaren sorkuntza	14
Ondorioak	21
Kulturartekotasunaren trataera hezkuntza emozionalaren bidez eskolan	21
Elkarlanetik ikasiz proiektuaren ondorioak	23
Erreferentziak	25
Eranskinak	31

Sarrera

Hasteko, lan hau Vitoria-Gasteizko Haur Hezkuntzako geletan kultura ezberdinei erreferentzia egiten dien errealitateari erantzuteko beharragatik sortzen da. Izan ere, Haur Hezkuntzako Graduako ikaslea izanik, nire ibilbide formatiboan zehar zenbait praktikaldi gauzatu ditut. Horietan, eskola publiko desberdinetan egoteko aukera izan dut, horrek, geletan ematen den egoera ikustea ahalbidetu dit. Hots, ghetto eskolak gero eta ohikoagoak dira, eta, eskola publiko desberdinetan gela barruan dagoen dibertsitate kulturala nabarmenagoa da. Hala ere, haur horiek gelaren parte badira ere, mendebaldeko kultura hegemonikoko ospakizunak nabarmentzen jarraitzen dira eta kultura horren balioak soilik transmititzen dira hezkuntza eremuan. Ez hori bakarrik, geletan errealitatea ikusteaz gain, unibertsitatean hori lantzeko aukera ere izan dut. Izan ere, graduako azken urtean, kulturartekotasun minorra gauzatu izan dut. Bertan, gaiaren inguruan gehiago ikasteko aukera izan dut eta kasu arrazista desberdinen berri izateko aukera ere. Horrez gain, kulturartekotasun ikuspegi batetik, proiektu desberdinen diseinuan eta sorkuntzan trebatu naiz ere, baliabide desberdinen ezagupena gauzatu.

Hezkuntza emozionalarekiko interesari dagokionez, graduan zehar psikologia irakasgai desberdinetan lantzearekin batera, Haur Hezkuntzan hori egoki lantzearen beharra sutuki defendatzen dut. Garrantzitsua da haurrak gaitasun kognitibo edota fisiko ezberdinetan trebatzea, bai; baina, gizarterako prestatzerako haien behar ezberdinak ere asetu behar dira. Horretarako hezkuntza emozionalak modu desberdinetan lagundu dezake, hala nola erabakiak hartzen, besteekin elkarrekintzan aritzen, emozioak erregulatzen edota besteen lekuan jartzeko gaitasuna garatzen. Hori guztiori Haur Hezkuntzara eramanda, horien artean, emozioak eta sentimenduak txikitatik landu behar dira hurrek erregulazio emozional eta identifikazio egokia gauzatzeko gai izateko. Gauzak horrela, *Emozioen lanqueta Haur Hezkuntzan Gradu Amaierako Lana (GrAL)* gaia hartu izan nuen. Ondoren, nire ikuspuntu pertsonala emateko asmoz, eta jada ezagutzen nuen errealitate bati erantzun bat ematen saiatzeko, kulturartekotasun ikuspegia gehitu nuen lanera. Beraz, hortik sortzen da lan hau gauzatzearen beharra eta ganorak.

Hezkuntza praktikaldiez gain, boluntariora desberdinak ere egin izan ditut, horietan ere, zoritxarrez, errealitate anitz eta ahaztu hori ikusi izan dut. Haur Hezkuntzako ratioak, handiak dira irakasle bakar baterako. Hortaz, askotan, irakasleak ezin ditu haur guztien beharrak asetu, eta nola zenbaitetan behar emozionalak landu gabe geratzen diren ikusi izan dut, denbora falta dela eta. Kultura desberdinetatik datozen haurrengan ere, ikusi izan dut nola irakasle batzuek ez duten horiekin komunikatzeko ahaleginik egiten. Adibidez, ikasturtea hasita, Argeliako bost urteko haur bat gelara etorri zen, bakarrik Arabieraz eta Frantsezez hitz egiten zuena eta soilik irakasle batek Frantsezez hitz sinpleak ikasteko

ahalegina egin zuen, komunikazioa ahalbidetzeko eta haur horrekiko atxikimendua sortzeko. Gauzak horrela, ikusitako egoera desberdinek lan hau egitera motibatu didate, hots, haur guzti horien beharrei erantzuna eman nahi izan diet.

Lan honi esker, gauza ezberdinak bilatzen ditut; hasteko, haurrek kulturartekotasunaren eta hezkuntza emozionalaren inguruan jakintza eta ezagutza gehiago eskura dezaten bada horietako bat. Gauzak horrela, emozioekiko zein kultura ezberdinekiko izan beharreko trataeraz ikasteko aukera izango dute, disenatutako *Elkarlanetik ikasi* proiektu manipulatioari esker. Horrez gain, lana ere gai horien inguruko informazio bilketa sakona eskaintzen du, zeinak gaian adituak diren idazle desberdinen iritziak eta ikerketak barne hartzen dituen. Lanak daukan beste helburua irakasleei zuzenduta dago; izan ere, proiektua haurrentzat diseinatu dudan arren, irakasleei laguntzeko ere egina dago. Irakasle askok, Kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionala lantzeko baliabide eta errekurtsu faltaz kexatzen dira. Hori horrela izanik, gelara eramateko egina dagoen proiektu bat eredu gisa izatea haien lana erraztu dezake eta horrek ere pizgarri gisa aritu du nigan. Hots, hezkuntza arloan inplikatuak gaudenak gure artean lagundu behar gara.

Azkenik, prozesu honek ikaskuntza ezberdinak ekarri dizkit. Garrantzitsuena, nire aburuz, horrelako proiektu bat diseinatzerako orduan, neure buruarengan gaitasun ezberdinak ikusi eta garatu izan ditut. Adibidez, baliabideen bilketa eta moldaketak egiteko gai izatea. Bestetik, antolaketa-trebetasunetan aritzeak lagundu nau; izan ere, GrALA prozesu luzea da, atal ezberdin asko biltzen dituenak. Hortaz, horiek atalka gauzatu behar dira, bakoitzari dagokion denbora eskainiz eta konstantea jokatu behar izan dut aurrera eramateko. Horrez gain, behin lana amaituta eta proiektua eramangarria dela ikusita, poza eta harrotasuna ere sentitu izan dut; prozesu gogorra izan den arren, irakasleei laguntzen dien proposamen didaktiko hau errealista, praktikoa, osatua, sakona, indarrean dauden hezkuntza-legeekin bat datorrena da. Gainera, haurren beharrei erantzuten dio, euren interesak kontutan izanik, baita motibagarria izanik ere.

Sarrerarekin amaitzeko, lanak jarraitzen duen egituraz arituko naiz. Lehenik, marko teorikoa daukagu, zeinetan kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionalaren inguruko aurrekari teorikoak dauden. Ondoren, metodoa aurki dezakegu; hemen, lana aurrera eramateko erabili izan diren tresnak aipatzen dira. Jarraitzeko, emaitzak daude. Horrek bi atal desberdin ditu: batetik helarazitako formularioaren emaitzak, eta bestetik proiektuaren diseinuaren nondik norakoak. Gero, ondorioak aurkeztuko dira, non emaitza esanguratsuenak baloratzen diren. Lanarekin amaitzeko, erreferentziak eta eranskinen atalak aurkitu daitezke.

Marko teorikoa

Lan honen atal honek oraingoan, marko teorikoaz eta hortaz, gaiaren kontzeptualizazioaz arituko da. Ezer baino lehen, gaiaren bi arlo nagusiak kokatu beharra daude, hauek: *kulturartekotasuna* eta *hezkuntza emozionala* dira.

Kulturartekotasuna

Hurrengo orrialdeetan kulturartekotasunez hitz egingo da eta hasteko, terminoa ulertu beharra dago. Gauzak horrela, kultura-aniztasuna aitortzea eta errespetatzea menderatze-estrategia berri bat da, eta ez du gizarte bidezkoagoak eta berdinzaleagoak sortzea eragiten, baizik eta gatazka etnikoa kontrolatzea eta gizarte-egonkortasuna mantentzea. Horrela definitzen du Walshek (2010) kulturartekotasuna alderdi funtzional batetik ikusita, gainera, hark zehazten duen moduan, termino hau kritikotasunetik ulertuta utopikoa da.

Jarraitzeko, Moralesek (2005) egiten duen definizioaz arituz gero, kulturartekotasuna kulturen arteko elkarrekintza eta elkarrizketaz ari da. Horrez gain, kultura ezberdinetan sortutako aurreiritzi eta estereotipoekin amaitzeaz ari da, bai eta botere-harremanik ez dagoela deritzo. Ildo beretik, norberaren ideiak bakarrak eta egokiak direlaren ideia nabarmentzen du. Horregatik, kulturartekotasunak askotariko kultura-formen arteko komunikazioaren eta trukearen garrantzia litzateke (Aguado, 2003). Kulturartekotasuna beraz, hezkuntza eta gizarte ez-arrazista eta ekitatiboa izateko bidea eta ideologiari erreferentzia egiten dio. Gainera, kultura-desberdintasuna errespetatzeaz gain, kultura-ezaugarri desberdinak dituzten gizabanakoen arteko elkarrekintzari eta komunikazioari zor zaion aintzatespen-egoera gertatu behar du (Villodre, 2016); izan ere, leku bat eskaini egiten zaie. Termino horren azalpenarekin amaitzeko, garrantzitsua da honek bultzatzen dituen baloreaz aritzea. Izan ere, aniztasunarekiko errespetua, elkarrekiko ikaskuntza, kultura bakoitzaren hazkundera eta integrazioa, lankidetzeta eta elkarrizketa aipatu daitezke (Díez, 2004).

Behin, kulturartekotasuna zer den argi geratu dela, desberdindu beharreko beste termino bat aipatu beharra dago: kultur-aniztasuna. Termino horrek, kultura desberdinak espazio geografiko edo sozial berean bizi edo egoten direnean datza (Morales, 2005). Gauzak horrela, termino horrek gizarte estatiko bat proposatuko luke zeinetan talde kultural bakoitzeko espazio bat dagoen, hortaz, segregaziora eraman ahal gaitzake. Izan ere, kultur-artekotasunak kultura bakoitza ezberdina egiten duen horri nabarmentzean zentratzen da; hori ba; berdintasunak bilatzea zailagoa bilakatuko da eta beraz, harreman bat sortzea kostatuko da (Morales, 2005). Horrez gain, Cortinak (1999) nabarmentzen duen moduan,

desberdintzen jakin beharra dago pertsonak gauzatzen dituzten iruzkinak errespetuz egiten diren edota ez-moralak diren. Hots, praktika kultural guztiak ez dira onartuak izan behar, baizik eta balore demokratiko eta giza eskubideen alde doazenak soilik (Morales, 2005).

Kulturartekotasuna eta kultur-aniztasunaren trataera Haur Hezkuntzan

Kontzeptualizazioa azaldu ondoren, Haur Hezkuntzako geletan gai honi zein nolako trataera ematen zaion deskribatu beharra dago. Aipatu beharra dago, horri ematen zaion trataera eta eskaintzen zaion arreta ez direla nahikoak, ezta egokiak. Izan ere, Monserrat eta Estellaresek (2013) azaltzen duten moduan, eskola-kronograma behatuz gero, urtean zehar ospatu egiten diren ospakizunak kultura hegemonikoari dagokie. Euskal Herrian egonda horiek, Olentzero, Agate Deuna, adibidez direlarik. Ikasgeletan aurkitzen dugun errealitatea anitza da, batez ere kulturartekotasun eremutik hitz eginda. Hortaz, ikasgela osatzen duten haur ezberdinen ospakizunaz aritzea edo horien inguruko jarduerak ez egiteak, kulturartekotasunari zein nolako trataera ematen zaionaren berri ematen du.

Jarraitzeko, ospakizun horiek, haurren garapenean eta identitatearen sorkuntzan eragiten dute (Monserrat eta Estellares, 2013); izan ere, irakaskuntzaren parte dira eta modu zuzenean edo zeharka bada ere haurrengan eragina dute. Modu berean, hezkuntzan bai geografikoki zein historikoki irakasten diren gertaerak, kultura nagusikoak dira, horiek, eurozentrismoak direlarik (Monserrat eta Estellares, 2013). Hori horrela izanik, kultura minoritarioei ez zaie leku bat ikasgelan eskaintzen eta haien ahotsak ez dira entzuten; aldiz, isildu egiten dituzte. Espainiako erkidego askok kulturartekotasunari dagokionez, eredu asimilazionista daukate (Monserrat eta Estellares, 2013). Hots, Retortillo et al. (2006) azaltzen duten moduan, kasu horretan pertsona etorkinek, kultura hegemonikoko ezaugarriak, baloreak, printzipioak, besteak beste hartu eta bereganatu behar dituzte, berena den jatorrizko kultura alde batera utzita. Beraz, kultura hegemonikoa kultura minoritarioa xurgatzen duela esan daiteke. Horren ildotik, kultura hegemonikoaren praktikak har ditzaten nahi dute pentsatzen dutelako, modu honetan, kulturen artean existitzen diren desberdintasunak desagertuko direla eta gizabanako guztiek hezkuntza-aukera berberak izango dituztela (Villodre, 2016). Hau da, hezkuntza-sistemak gizartea homogeneizatzea bilatzen du.

Zenbait egile haien lanetan ondorioztatu duten bezala, curriculum eta eskola eremuan aurrera eramaten diren ospakizunak, kultura batek daukan identitate kolektiboarekin harremanetan dago. Beraz, nortasun kolektibo propioa modu kritikoan eta banalizatuan onartzen da, eskola-testuinguruan. Testuinguru horretan, gizarte-memoriak

eraiki izan dira tradizioz, eta herentzia historiko-kulturala eguneratuta geratzen da, jakite-botere harremanen emaitza gisa (Montserrat eta Estellares, 2013; Villodre, 2016).

Haur hezkuntzan kulturartekotasunari ematen zaion trateraren ildotik jarraituz, testuliburuak eta gelako liburutegian dauden liburuez hurrengo esan daiteke. Grasa (1998) argi uzten duen moduan, erabiltzen dugun materiala orokorrean arrazista eta etnozentrikoa da. Hori horrela izanik, testuliburuak zein erabiltzen den materiala ez litzateke kulturartekotasuna lantzen ezta sustatzen ariko. Izan ere, Grasa (1998) dioen arabera, protagonistek beti itxura eta ezaugarri berdinekoak izaten dira, hauek, txuriak, europarrak, mutilak, etab. direlakoan. Gainera, pertsonaien akatsak eta bertuteak arraza ezaugarritzat hartzen dira, eta ez pertsonatzat, horrek, kultura horren parte sentitzen ez diren haurren autoestimua kaltetu ditzake.

Izan ere, eskola eremuan irakasten eta erakusten diren pertsona eta eredu ezberdinekin ez da identifikatzen. Hortaz, ez dituzte erreferenterik. Halaber, ikasgelan aurkitzen ditugun liburuak eta teoria irakasten den liburuek orokorrean, historia kontatu egiten dute lekuak bat-batean gure aurrean aterako balira moduan, hau da, Grasa (1998) dioen bezala, aurkitzaile eta salbatzaile gisa irudikatuak agertzen dira kultura hegemonikoko pertsonaiak. Modu honetan, beste pertsonen ahotsak isiltzen dira. Ikasgelan kulturartekotasunari ematen zaion tratamendua, irakasten diren irudien bidez (Grasa, 1998) ere ikus daiteke. Gehienetan, hauek estereotipatuak ageri dira, ez hori bakarrik, baizik eta jada aipatutako eredu bakar batean zentratzen dira. Hortaz, ikasgelan ageria den aniztasuna ez da islatzen irakasten eta erakusten diren materialetan.

Haur Hezkuntzako ikasgeletan aniztasun honi ematen zaion trataerarekin jarraituz, Villodrek (2016) aipatzen duen beste elementu bat musika da. Geletan honi eskaintzen zaion lekua, Euskal Herriaren kasu, euskal abestiak ikasteko da bai eta arbel digitaletan ipintzen diren abestiak ere euskal abestiak dira. Horrez gain, geletan instrumentu musikalekin irakasten diren melodiak sinpleak dira eta bertoko kulturari dagozkio. Hortaz, kultura minoritarioko erritmo, abesti edo musikaltasunari ez zaio lekua eskaintzen.

Hots, Haur Hezkuntzako irakasleek musikatik zenbait elementu eta ezaugarri atera ahal dituzte eta hauekin, ikasleei beren praktikaren berezko balioak transmititu. Adibidez, bestearen ekarpenarekiko errespetua, beste kultura-errealitate batzuen ulermena, bizikidetzeta eta esperientzia-trukea (Villodre, 2016). Horrekin erlazionatuta, dantza eta dramatismoa ere dago, Haur Hezkuntzan honi ez zaio behar den garrantzia eta trataera eskaintzen. Hots, kultura hegemonikoko dantzak soilik gauzatzen dira jaiegunetan. Bestetik

ematen zaion trataera haurrak estresa ateratzeko da, hau musikarekin erlazionatzen da, baliabide hori erabiliz gauzatzen baita (Villodre, 2016).

Trataeraz aritzeko azkenik aipatu beharreko alderdia, Euskal Herriko Haur Hezkuntzako Curriculuma izango litzateke. Hau aztertzen badugu, ikusi dezakegu nola aipatzen den bezala, gizarte pluralago batean bizi garela kontziente diren (237/2015 Dekretua). Horren ildotik, kulturen arteko ideia trukaketa aipatzen da hauen arteko ulermena errazteko bidean. Hala ere, geroago diziplina barneko zehar-konpetentziez zein oinarrizko konpetentziez aritzerakoan, kulturartekotasun alderdiari ematen zaion trataera ez da oso nabaria. Egia bada ere curriculumean zehazten diren konpetentzia asko kulturartekotasuna lantzeko balioerriak direla, baina hauetan ez da ezer argi azaltzen.

Gauzak horrela, irakasleek norberaren ikuspuntua eta irakasteko moduaren arabera hori klasean txertatzea erabakiko du. Azkenik, curriculumetik aipatu beharreko alderdia, kulturartekotasunari konpetentzia bat ez zaiola eskaintzen izango litzateke (237/2015 Dekretua). Oro har, kulturartekotasun eredu eta paradigmek haurren garapen integrarean laguntzen dute bai eta gaur egungo errealitatearen gizartera egoki moldatzen eta honen parte izaten lagundu ahal diete. Ikasle hauek, ikasgelan ematen zaion trataera murriztua dela eta, ez dute jakingo kultura ezberdinen aurrean egonda nola jokatu behar duten.

Kulturartekotasunaren onurak eta zailtasunak

Atal honekin bukatzeko, kulturartekotasunak dakarren onurak eta zailtasun edo arazoak identifikatuko dira. Jakina den moduan, kulturartekotasunak aniztasunaz ikastea ahalbidetzen du. Horrek, kultura ezberdinak, erlijio, pentsatzeko modu ezberdinez etab. ikasteko aukera eskaintzen du (Arroyo-González, 2013). Horrez gain, kulturartekotasunak ekitatea eta berdintasuna bilatzen duenez, ikasle horiek, hezkuntza duina eta berdintasunezkoa jasoko dute (Arroyo-González, 2013), hortaz, haur horiek, konpetentziak eskuratzea posible izango dute eta goi-mailako graduetara ailegatzea posible izango dute haien merituen arabera. Bestetik, ikasle guztien gaitasunei eta aukerei buruzko itzaropen positiboak ditu (Besalú eta Vila, 2007), modu horretan, ikasleen autoestimu eta autokontzeptuen eraikuntza positiboan lagundu dezake.

Horren ildotik, ikasle guztien autokontzeptu pertsonala, soziala, kulturala eta akademikoa hobetzen laguntzen du (Arroyo-González, 2013). Gainera, Goenecheak (2005) aipatzen duen bezala, pertsonen eta taldeen arteko elkarbizitza bultzatzen du, elkarrekiko errespetua garatuz, gatazken kudeaketan lagunduz eta elkarrekintza garatzen lagunduz. Horrez gain, kulturartekotasunean irakasteak haurrek elebitasunean hezteka ekar dezake,

kultura desberdinen arteko elkarrekintza eta harremanek gaitasun komunikatiboa hobetu dezaketelako (Arroyo-González, 2013), alor kognitiboan lagunduz.

Zailtasunetara pasa aurretik, azken onura baten inguruan hitz egingo da, zehazki, geroago landuko den hezkuntza emozionalarekin lotura duena; hau da, empatia. Izan ere, Guitartek (2012) bere analisisan azaltzen duen moduan, kulturartekotasun eremu batean egoteak eta kultura desberdinekin harremantzeak gaitasun emozionalak garatzen laguntzen du. Adibidez, empatia garatzen lagundu dezake, zeinak beste pertsonen lekuan ipintzea ahalbidetzen duen, haien sentimenduez kontziente izaten (Guitartek, 2012). Hortaz, kulturartekotasun ereduak garapenaren arlo emozionalean ere eragin onuragarriak izan dezakete.

Hala ere, kulturartekotasun eredia eskoletan aplikatzea, zailtasunak dakartza. Jakina denez, zenbait ezaugarri bermatu behar dira hau aplikatu ahal izateko. Moralesen (2005) ustez, irakasleen hasierako prestakuntza eskasa, lausoa eta sistematizazio maila gutxikoa da; horrek kulturartekotasun paradigma eskoletan aurrera eramatea zailtzen du modu nabarian. Gainera, gizartean ematen diren aldaketa sozial sakonei erantzuteko ezintasuna dago, eta; horien artean, kultura-aniztasunak leku nabarmena du (Morales, 2005).

Jarraitzeko, komunikazioa bermatzea zaila suertatu daiteke ikasgela kulturantzetan; izan ere, hizkuntza desberdinak eta kode desberdinak tartean egonda, ulermena bermatzea zenbaitetan galaraztea ekar lezake (López eta Guinea, 2013). Horrek, harremanak garatzea konplexuago bihurtu dezake. Hori, kontuan hartu beharrekoa da gure testuinguruan: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) daukagun etorkin kopurua ez da gutxi, hots, Ikuspegik zehazten duen moduan; 2022ko urte hasieran, EAEn 253038 atzerritar erroldatuta zeuden, zeinak biztanle guztien %11.5ari erreferentzia egiten dion. Hala ere, kultur-aniztasuna oraindik arrisku bezala ikusten da (Ikuspegi, 2022).

Azkenik aipatu nahi den zailtasuna, kontzeptuaren beraren ideia utopismoa izango litzateke. Oro har, gizarte multikultural batean bizi garela agerian dago, baina honetan dauden beharrei erantzuteko behar diren baliabide nahikorik ez daude (Besalú eta Vila, 2007). Gainera, curriculumak ez daki honi erantzun egokia ematen jakin (Arroyo-González, 2013). Hortaz, eredu hau gizartean aplikatzea, gaur egun, zoritxarrez ez da errealista.

Adimen Emozionala

Behin kulturartekotasunaren atala azalduta geratu dela, lan honen barnean garrantzia hartzen duen beste terminoaz hitz egingo da, hau da, adimen emozionalaz (AE). Lehen bezala, oraingoan ere marko teorikoaren azpiatal honen kontzeptualizazioa gauzatuko da. Hasteko, norberak bere eta besteen emozioak hautemateko, bereganatzeko, ulertzeko eta erregulatzeko trebetasun gisa definitzen da, honek gainera, hazkunde emozionala eta intelektuala sustatu egiten dituen kontzeptu bezala uler daiteke (Salovey eta Mayer, 1990).

AEz aritzerakoan, pertsona batek bere bizitzan zehar garatzen joaten den trebetasun multzoez aritzen gara. Hauek adibidez, enpatia, norberaren motibazioa, autokontrola, emozioen erregulazioa, besteak beste, izan daitezke (Salovey eta Mayer, 1990). AE horrek ezaugarri mota desberdinez osaturik egin daitekenez, bakarrik trebetasun emozionalak (i.e., *AEren gaitasun ereduak*) eta trebetasun emozionalak, gaitasun sozialak eta nortasunaren ezaugarriak (i.e., *AEren eredu mistoak*) biltzen dituzten teorien artean desberdindu ohi da.

Mayer eta Saloveyk (1997) proposatzen duten AEren lau adarretako teoria bada, emozioak eta arrazoibidea bateratzen dituen informazio emozionalaren prozesamenduan zentratutako gaitasun ereduaren kokatutako teoria bada. Bertan, AE gure emozioak bizitza emozionalari buruz modu eraginkorragoan arrazoitzea eta modu adimentsuagoan pentsatzeko erabiltzea ahalbidetzen duela ulertu daiteke (Fernández-Berrocal eta Extremera-Pacheco, 2005). Haiek proposatzen duten ereduaren lau adar ezberdin ditu, are gehiago; emozioak hautematea, baloratzea eta adieraztea; pentsamenduaren erraztasun emozionala; emozioen ulermena eta azterketa; eta emozioen erregulazio hausnartua (Mayer eta Salovey, 1997).

Behin Mayer eta Saloveyren (1997) ereduaren azalduta geratu dela, AEaren eredu mistoetara pasako gara. Izan ere, euren artean desberdinak izan daitezkeen teoria anitz biltzen ditu. Horien artean, Goleman (1995), Bar-On (2006) eta Grup de Recerca en Orientació Psicopedagógica (GROP) ezagunenak direla. Estatu mailan, hain zuzen, azken hori, zabalduenetarikoak da eta erabilena hezkuntza esparruan. Horregatik, GROPeke AEaren eredu pentagonalaz aztertuko da, hori baita hezkuntza emozionalaren oinarria.

Eredu pentagonal honek, bost kompetentzia hartzen ditu bere gain, zehazki, *bizitzarako eta ongizaterako kompetentzia; kompetentzia sozioemozionala; kontzientzia emozionala; erregulazio emozionala eta autonomia emozionala* (Bisquerra eta García, 2018).

Bizitzarako eta ongizaterako gaitasunei dagokienez (Bisquerra eta García, 2018), bizitzako eguneroko erronkei (e.g., pertsonalak, profesionalak, sozialak) behar bezala aurre egiteko portaera egokiak eta arduratsuak izateko gaitasuna da. Horri esker, bizitza modu osasuntsuan eta orekatuan antolatzeko aukera ematen digute, gogobetetze- edo ongizate-esperientziak emanez. Jarraitzeko, konpetentzia sozioemozionala daukagu eta horrek, beste pertsonekin harreman sozial egokiak izaten laguntzen dute, hortaz, asertibitatea, errespetua, besteak beste, barne hartzen ditu. Horiek horrela, aurkitu daitekeen beste konpetentzia bat kontzientzia emozionala da. Honetan, norberak bere emozioez eta baita besteen emozioez kontziente izateko gaitasuna da; horrez gain, testuinguru jakin bateko giro emozionala atzemateko trebetasuna barne hartzen du ere. Ildo beretik, erregulazio emozionala dago eta horrek, emozioak modu egokian kudeatzeko gaitasunari dagokio. Hortaz, emozioaren, kognizioaren eta portaeraren arteko harremanaz jabetzea da. Eredutegien azken konpetentzia autonomia emozionala da. Hori, kontzeptu zabal gisa uler daiteke. Bere barne, norberaren kudeaketa pertsonalarekin lotutako ezaugarriak biltzen ditu, adibidez, autoestimua, bizitzarekiko jarrera positiboa, erantzukizuna, autoeraginkortasun emozionala (Bisquerra eta García, 2018).

Adimen Emozionalaren trataera Haur Hezkuntzan

Marko teorikoaren atal honen kontzeptualizazioa gauzatu dela, lehen bezala, adimen emozionalak hezkuntzan duen trataeraz hitz egingo da oraingoan. Horretarako, bi testu desberdin hartuko dira erreferentziatzat: bata Euskal Herriko Haur Hezkuntzako curriculum (237/2015 Dekretua) eta, bestetik, *Ley Orgánica por la que se modifica la LOE* (LOMLOE, 3/2020).

Hasteko, Heziberri curriculumean aurkitu dezakegun erreferentzia bat hurrek hitz egiteko gaitasuna garatu behar dutela zehazten du. Horrekin lotuta, haien sentimendu eta emozioetan trebatu behar dira, norbere burua zein besteena ulertzeko (237/2015 Dekretua). Jarraitzeko, emozioek hizkuntzan daukan garrantziaz aritzen da, jakina den moduan, hizkuntzek garapen emozionalean eta sozializazio-prozesuan laguntzen dute (237/2015 Dekretua). Horrek, lotura izan dezake alderdi emozionalari lotutako identitatearen garapenarekin.

Horrez gain, izaten ikasteko konpetentzian, alderdi emozionala ere aipatzen da, alderdi desberdinetan zehar. Hasteko, nork bere burua erregulatzeko gaitasuna eta norberaren nortasuna eraikitzeaz aritzen da, oro har, autoestimua eta autonomiaz (237/2015 Dekretua). Ildo beretik, literatura konpetentzian ere aipamena egiten zaio Dekretuan; izan ere, horrek pertsonak haien buruak hobeto ulertu dezatela eragiten du.

Etapen helburuetan, ongizate emozionala zainduko dela aipatzen da (237/2015 Dekretua, 2015). Konpetentziek zein edukiek, hezkuntza emozionalari aipamena egiten diote, adibidez, emozioen autoerregulazioaz aritzen dira, GROPEk aipaturiko terminoa dena. Irakasleen ebaluazioan ere alderdi emozionala aipatzen da lege horretan baina ez da zehazten hau nola ebaluatuko den.

LOMLOEaz (3/2020) arituz, honetan, hezkuntza emozionalari arreta berezia ipiniko diotela aipatzen dute. Horrez gain, aipaturiko hezkuntza emozionala irakasgai guztietan landuko dela zehazten du. Honek, garapen afektiboari erreparatuko zaiola dio.

Prestakuntza programetaz hitz egiten dutenean, irizpide pedagogikoak norbanakoaren ezaugarrietara egokituko direla zehazten da. Gainera, curriculuma emozio-trebetasunen garapena sustatuko duela dio (LOMLOE, 3/2020), beraz, emozioak abiapuntu gisa hartuko dira. Gauzak horrela, zehaztu daiteke curriculumetan hezkuntza emozionalari ematen zaion garrantzia eta trater, kulturartekotasunari ematen zaiona baino nabariagoa dela.

Adimen Emozionalaren ekarpenak garapen integralean

Marko teorikoari amaiera emateko, azkenik AE garatzea eta sustatzea ekarri ditzakeen ekarpenak aipatuko dira. Ekarpn gehienak, alor psikologikoaren ildotik ematen dira. Hasteko, AE handia duten pertsonak, pentsamendu-egitura malgua dute, hortaz, egoera desberdinetara erraztasunez moldatzeko gaitasuna izaten dute (García eta Ramos, 2007). Horrez gain, haien buruak modu egoki batean onartzen dituzte; horri esker, harreman atseginak ezartzeko gaitasuna dute (García eta Ramos, 2007). Horren ildotik, aipatu beharra dago AE talde-lanaren iragarle gisa ikusten dela (Fernández-Martínez et al., 2016), hots, norberak bere emozioak kontrolatzen ikasten duenez, taldean modu eraginkorrean lan egiteko beharrezkoak diren estrategiak aktibatzen laguntzen du.

Are gehiago, ikerketa enpiriko ugari babesten dute adimenaren eta adimen emozionalaren arteko lotura, bai eta azken honek nortasunarekin duen harremana (García eta Ramos, 2007). Hortaz, adimen emozionalak nortasunaren garapenean eragiten du eta beraz, pertsona nolakoa den erabakitzen eta eraikitzen laguntzen du. Gainera, Fernández-Martínez et al. (2016) zehazten duten moduan, ongizate pertsonala bermatzen laguntzen du; aitzitik, aukera gutxiago ematen dio pertsonari gatazkak, indarkeria, estresa, depresioa edo drogen kontsumoa bezalako jokabide arriskutsuetan inplikatzeko. Horregatik,

Haur Hezkuntzatik alderdi emozionala lantzea proposatzen dute, horrelako jarrerekin amaitzeko asmoz.

Aipaturiko ekarpenez gain bestelako batzuk aipatu daitezke, hala nola, autoezagutza eta erabakiak hartzea hobetzen du; estresa saihesten du; garapen pertsonala bultzatzen du; motibazioa handitzen du eta helburuak lortzen laguntzen du; hobeto lo egiten laguntzen du; ongizate psikologikoa bultzatzen du; antsietatea murrizten du eta depresioa gainditzen laguntzen du (Fernández-Martínez et al., 2016).

Metodoa

Helburuak

Hasteko, lan hau kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionala lantzea du helburu. Horretarako, eskola batean ematen den egoera aztertu egin da sortutako formularioen bitartez. Formulario hauek, partaideen inguruko informazioa eskuratzeko galderak gauzatzeaz gain, gaiaren inguruan bestelako galdera zehatzagoak ere proposatu izan ditu. Ondoren, Hezkuntza emozionala eta kulturartekotasuna lantzea helburu izango duen proiektu baten diseinua gauzatu da. Proiektua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gela batean aurrera eramateko pentsatuta dago.

Parte-hartzaileak

1. helburuan aurrera eraman den formularioan parte-hartu duten irakasleen inguruko informazioa eskainiko da. Ikerketa honetan 28 pertsona parte hartu dute. Hasteko, adina aipatuz gero, kasuan honetan, 26 eta 63 urte arteko partaideak izan dira. Generoari dagokionez, partaideen %71.4a (20 partaide) emakumeak dira; aldiz, %28.6a (8 partaide) gizonak dira. Bestetik, hezkuntza arloan izandako esperientzia urteak galdetu zitzaizkien. Galdera hau, adina bezala, erantzun anitzak jaso izan ditu. Izan ere, esperientzia eremua pertsonaren arabera 2 urtetik 35 urteko esperientziara doa.

Horrez gain, partaideengan aipatzea garrantzitsua den beste datu bat, hauek izandako oinarrizko formakuntza da. Orokorrean Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako diplomaturak eskuratu dituzte; hala ere, badaude beste irakasle batzuk zeinak bi diplomaturak eskuratu dituztenak. Horrez gain, musika edo ingelesa mentzioak gauzatu dituzten irakasleak daude, bai eta euskal filologia edo heziketa fisikoko graduak gauzatu dituztenak, magisteritzaz gain. Bestetik, psikopedagogia masterra gauzatu duen irakasle bat dugu ere. Azkenik aipatu beharreko datua, Haur edo Lehen hezkuntzako irakasleak diren izango litzateke, kasu honetan, %50a (14 partaide) Lehen Hezkuntzan irakasten du, %35.7a

(10 partaide) Haur Hezkuntzan irakasten du eta geratzen den %14.3a (4 partaide) Haur zein Lehen Hezkuntzan irakasten du.

Tresnak

Lan honetarako, Vitoria-Gasteizko hiriko Haur eta Lehen Hezkuntza eskola publiko bateko irakasleei formulario bat helarazi zaie, eta, ondoren, emaitzetan ikusi ahal izango den moduan, horretan atera diren erantzunak aztertu dira. Hortaz, GrAL honetan bi tresna desberdin erabili izan dira, bata, formularioa eta bestetik, proiektua bera. Formularioaz arituz gero, hamabi galderako formularioa dela esan dezakegu. Horietako bost galdera partaideen inguruan informazioa jasotzeko diseinatuak daude, hala nola, adina, generoa, oinarrizko formakuntza. Bestetik, galdera zehatzagoak proposatu dira hezkuntza emozionala eta kulturartekotasunaren inguruan irakasleek zeukaten iritzia entzuteko asmoz. Atal honetan proposatutako galderak adibidez, onurak eta zailtasunak edota ezagutzen dituzten estrategia eta baliabideak aipatzea. Formularioak barne biltzen duen informazioan gehiago sakondu nahi izanez gero, jo 1. eranskinera. Jarraitzeko, diseinatutako proiektua, zehaztutako gaia lantzeko baliagarriak izango diren jardueren proposamena gauzatzen du. Hau, HHko bigarren zikloko gela batean aurrera eramateko pentsatuta dago eta guztiera 6 jarduera proposatzen ditu. Gehienak manipulatioak dira eta haurren gaitasunetara egokituak daude. Jarduera horiei esker, haurrek hezkuntza emozionala zein kulturartekotasunaren inguruko jakintzak eskuratu ditzakete. Proiektua ez da atal honetan deskribatuko, aldiz, erantzunen atalean zehaztuta agertuko da.

Prozedura eta analisia

Azkenik, lanaren prozedura eta analisisiaz arituko da. Lehenik eta behin, egoera aztertu zen; izan ere, geletan dagoen kulturartekotasuna gero eta nabaria da. Hortaz, honi erantzuteko beharra ikusita, aurrekari teorikoetan sakondu egin zen, datu bilketa gauzatu. Jarraitzeko, ikerketa kualitibo bat gauzatu egin zen, zeinetan eskola jakin baten egoera jakin nahi zen. Honi esker, aurrerago proposamen didaktiko bat aurrera eramatea posible izango zen. Gauzak horrela, Gasteiz hiriko eskola publiko batekin harremanetan jarri ondoren, formularioa diseinatu egin zen. Formulario hau kulturartekotasuna, bizikidetzeta eta hezkuntza emozionalan zentratuta zegoen, eta datu pertsonalak jasotzeko atal bat zeukan eta ondoren 6 galdera zehatz proposatzen ziren.

Formularioa google forms-en bitartez helarazi zitzaion irakasleei eta hau betetzeko bi asteko epa eskaini zitzaion. Ondoren, eskainitako erantzunak amankomunean eta desberdin zer zeukaten jaso izan da lanean. Amaitzeko, hori ikusita, proposamen bat diseinatu izan da. Hau, *Elkarlanetik ikasiz* du izena eta hezkuntza emozionala eta kulturartekotasuna lantzea

du helburu bi hauen barnebiltzen dituen jardueren bitartez. Izan ere, emozioen inguruko informazioa (terminoak, sentipenak...) bereganatzen laguntzen du. Ondoren, jarduera zehatzagoak proposatzen dira kulturartekotasun ikuspegia gehituz. Honi esker, haurrek emozio konplexuagoak sentiaraztea, hala nola, enpatia, bilatzen du haurren egunerokotasunean presente dauden kultura ezberdinak inplikatur. Aurrera eraman diren ekintza desberdinak, besteak beste, emozioen bingoa, emozioen gupila, liburuen irakurketa, antzerkiak izan dira. Eraitzen atalean proiektua zehaztasun gehiagorekin azalduko da.

Eraitzak

Kulturartekotasunaren trataera hezkuntza emozionalaren bidez eskolan

Eraitzen atal honetan, irakasleei helarazitako formularioen erantzunak deskribatuko dira. Izan ere, galdera ezberdinak proposatua horietan atera diren datu batzuk aipatu behar dira. Hasteko, kulturartekotasuna, bizikidetza, hezkuntza emozionala eta emozioak entzuterakoan, irakasleei bururatzen zitzaizkien lau hitz edo emozio aipatzea eskatu zitzaien. Galdera horretan aipatu direnen artean nabarmendu beharrekoak hauek dira: *errespetua, ahaztua, enpatia, erronka* eta *aniztasuna*, hots, erantzun gehienetan aipatu diren hitzak izan dira. Horrez gain, nabarmendu beharreko bestelako hitzak hauek dira: *aberasgarria, zaila, babesa, zaintza, ezinbestekoa, maitasuna, nekagarria, gogorra*.

Bestetik, termino hoiak eskolan lantzerakoan haurrengan izan litekeen onurak eta zailtasunak aipatzea eskatu zitzaien irakasleei. Onuren artean, erantzun desberdinak atera dira; batetik, irakasle batek aipatzen duen moduan: "komunikazio eraginkorra lantzen da eta gatazken aurrean etorkizunerako baliagarriak diren estrategia onuragarriak lantzen dira". Bestetik, berdintasuna, enpatia eta errespetua ere aipatzen dituzte onura gisa. Horrez gain, elkarlaguntza kooperatiboa eta gizarte baketsuagoa (bizikidetza) lortzen lagundu dezakeela aipatu dute. Beste batzuk, ikasleek autoezagutza handiagoa izatea lortuko dutela komentatu dute, aldi berean, autoestimua indartzen lagunduko duela, bai eta errespetuzko jarrerak barneratzen lagunduko lukeela. Ez hori bakarrik, norberaren emozioak identifikatzen eta emozioak kudeatzen ikasten lagunduko lukeela aipatzen du beste irakasle batek.

Horrez gain, irakasleek ere gaiak suposatzen dezaken zailtasun asko aipatu zituzten. Gehien errepikatu zirenak, hauek dira: gaiaren inguruan irakasleek daukaten informazio eza eta ezjakintasuna; baita ere, baliabide pertsonal eta material eskasak askotan aipatzen dituzte. Era berean, denbora eskasa eta ratioak gehiengoak ere aipatu dute. Bestetik, estereotipoak ere aipatzen dira zenbait erantzunetan zailtasun gisa; izan ere, hoiakin amaitu beharra dago eta horiek daukaten pisuaz aritzen dira. Azkenik, hiru pertsonak haien

erantzunetan aipatzen dute ez dituztela zailtasunik identifikatzen, hots, funtsezkoak diren gaiak direla deritzote eta bai edo bai landu beharreko gaiak direla soilik onurak dakartzatenak.

Jarraitzeko, irakasle guztiek ados daude emozioak erabili behar direla kulturartekotasuna eta bizikidetzaren haien egunerokotasunean lantzeko. Hortaz, haiek lantzeko estrategia eraginkorrak aipatzea eskatuta, irakasle askok, ados daude familia eta auzoa eskola-komunitatean inplikatzeko funtsezkoa dela. Horrez gain, hausnarketan/asanbladen kontua erantzun askotan ere ateratako gaia izan da. Izan ere, aipatzen dute gaia gelara bertaratu behar dela eta eguneroko egoerak edota albistek gelara ekartzea gomendagarria dela, hauekin eztabaidak sortu asmoz. Ez hori bakarrik, eredu bisual anitzak eskaintzea aipatzen da; hau da, geletan eta eskolan egiten diren ekitaldien bideoak, argazkiak, hitzaldiak, besteak beste, hizkuntza anitzetan izatea eta hurrei eredu ezberdinak eskaintzea proposatzen dute. Bestetik, Haur Hezkuntzan irakasten duten irakasleen artean, erantzun bat asko errepikatu da: bizipenak hurbilak izatea; hau da, haurrentzat zentzuzkoak izatea eta haien egunerokotasunarekin erlazionatua egotea gomendatzen dute estrategia gisa. Azkenik, Haur Hezkuntzarako ere, musika eta dramatizazioaz baliatzea gomendatzen dute.

Ez hori bakarrik, irakasleek gaiaren inguruan dakizkiten baliabideen inguruan informazioa jaso izan zen. Partaideen %78.6a (22 partaidek) gaiaren inguruko errekurtsoak ezagutzen dituzte, bestetik, %25ak (7 partaidek) ez dituzte gaiaren inguruko baliabiderik ezagutzen. Baietza eman dutenen artean, erantzun ohikoenak ipuinak, bideoak, rol-playing/antzerkiak, musika, besteak beste. bezalako erantzunak izan dira. Hala ere, gutxi entzun diren errekurtsoak atera ziren ere: SKOLAE programa; IDU ikuspegia; Hezkidetzagunea eta Bizikasi.


Azkenik, irakasleek gelan kulturartekotasuna hezkuntza emozionalaren bitartez lantzeko zer behar duten galdetuta, gehien errepikatutako erantzunak, *formakuntza*, *ratioen murrizketa*, *material egokia (ez sexista, inklusiboa...)*, *koordinazioa eta denbora gehiago* behar dutela izan dira. Horrez gain, aipatzekoak dira ere atera diren irakasleen eta familia zein ikasleen partetik behar den jarrera, bestetik, tutoretza planetan informazio hau barne biltzea, eta azkenik, baliabide gehiago izatea aipatzen da.

Elkarlanetik ikasiz proiektuaren sorkuntza

Honako proiektu hau kulturartekotasuna eta emozioak lantzea izango du helburutzat. Hortaz, lehenik eta behin, proiektuan zein kultura landuko diren aipatu beharra dago

Horretarako, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT, 2021) ateratako datuei erreparatuko zaie (ikus 1. Irudia), izan ere, Euskal Herrian gehien nabarmentzen diren kultura horietara erreparatuko zaie. EAEn bizi diren atzerritarren nazionalitateen kopurua hurrengokoak dira: Latino Amerikarrak izaten dira gehien nabarmentzen den atzerritar kopurua, izan ere, %40.7a hemendik etorria da. Zehazki, Kolonbia eta Nikaragua dira kopuru nabarmenena portzentaiaren %37.4a osatuz. Jarraitzeko, Europako nazionalitatea duten pertsonak bigarren portzentaia handiena hartzen dute, hau, % 23.9a izanda. Honen barnean kultura nabarmenenak hurrengoak dira: alde batetik Errumania %43.7a osatzen dutela eta bestetik Portugal %14.9a dela. Horrez gain, afrikako nazionalitatea duten pertsonak ere baditugu Euskal Herrian, hauek %27a osatzen dute, Maroko (%53.4) izanda etorkin gehien datozen herrialdea. Azkenik, Asiako eta Ozeaniako nazionalitatea duten pertsonak badaude ere, hauek % 8.4a osatzen dute eta batez ere Txina eta Pakistanetik datozte, herrialde hauek %75.3a osatzen baitute.

1. Irudia. Euskal Autonomi Erkidegoan bizi diren atzerritarren nazionalitateen kopurua.



Iturria. Egileak sortua.

Behin datuak zehaztu direla, zein kultura landuko diren aipatuko da. Hauek, Maroko, Kolonbia, Errumania eta Txina izango dira. Izan ere, kontinente bakoitzetik nabarmenenak diren kultura horiek landuko dira. Kultura hauetatik ezaugarri desberdin batzuk landuko dira, proiektuaren hartzailleak diren horiek jaso eta jakin behar dituzten ezagutzak bereganatzeko.

2. Irudian, zehazki, zeintzuk landuko diren ikusiko da.

Zein kultura eta hauen barne zein ezaugarri landuko diren zehaztutakoan, alderdi emozionalean landuko dena zehaztu beharra dago. Izan ere, marko teorikoan aipaturikoa GROPeke bost kompetentzia horietatik proiektuan zein landuko den zehaztuko da. Horretarako, lehenik eta behin proiektuaren hartzailen adina zehaztu beharra dago. Proiektua Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren mailan aurrera eramateko

pentatua dago, hortaz, Haur Hezkuntzako bost urteko gelan inplementatzeko diseinatua dago.

2. Irudia. Kultura bakoitzatik landuko diren ezaugarriak.



Iturria. Egileak sortua. Lehenengo ilaran ezkerretik eskumara (janaria, ospakizunak, hizkuntza eta erlijioa). Bigarren ilaran ezkerretik eskumara (janzkerak, musika eta dantza, komunikazio kinestetikoa eta hezkuntza).

Gela honen aukeraketa hurrek daukaten gaitasunengatik da, izan ere, zenbait emozio simple ezagutu eta identifikatzeko gai dira bai eta pentsamendu kritiko bat izateko bidea eraikitzen hasiak dira. Horrez gain, alderdi kognitiboan, motorrean, etab. eskakizun konplexuagoak egin daitezke hauetan daukaten maia dela medio.








Jarraitzeko, proiektuak dauzkan helburuak zehaztuko dira; horretarako, 1. Taulan ikusgai dira.

1. Taula. Proiektuaren helburuak.

Norberaren emozioak hobeto ezagutzea eta besteenak hobeto identifikatzeko gai izatea.



Iturria: Amadag

<p>Norberaren emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzea. Izan ere, gertakari bat egotean emozioek gaindi ez ditzaten lortzea.</p>	 <p>Iturria: EMAE clínica</p>
<p>Emozio negatiboen ondorio kaltegarriak prebenitzea eta emozio eta sinergia positiboak sortzeko trebetasuna garatzea.</p>	 <p>Iturria: Prometeo</p>
<p>Automotibatzeko trebetasuna garatzea.</p>	 <p>Iturria: OBS</p>
<p>Bizitzaren aurrean jarrera positiboa izatea.</p>	 <p>Iturria: Lifeder</p>
<p>Gatazkak modu positiboan kudeatzen ikastea.</p>	 <p>Iturria: Universitat de Barcelona</p>
<p>Kultura ezberdinekiko errespetua garatzea.</p>	 <p>Iturria: Amelia B. Yackow</p>
<p>Kultura ezberdineko pertsonekin harremantzeko gaitasuna garatzea.</p>	 <p>Iturria: losmellosymaria</p>

Jarduera ezberdinen bitartez zenbait helburu orokor eta bestelako helburuak lantzeko aukera dago. Horien inguruan informazio gehiago eskuratzeko jo 2. Eranskinera.

Jarraitzeko, proiektu honek dituen edukiaz arituko da, horretarako, 237/2015 curriculumean Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako zehazten diren edukiei erreparatuko zaio. Hasteko, lehenengo multzoan nortasunaren eraikuntzari erreparatzen zaio, honen barne landuko diren edukiak zentzumenetaz aritzen dira. Izan ere, horien erabilpenaz bermatzea dio, sentsazio ezberdinak ezagutzeko (237/2015 Dekretua).

Horrez gain, pertsona orok bere lana balioestea aipatzen dute, horiek horrela, egindako akatsak hobetzeko bidea dira (237/2015 Dekretua). Are gehiago, Dekretuari erreparatuz gero, bigarren multzo bat dugu, zehazki, hartu-emanak gizarte-ingurunean, zeinak kulturartekotasunarekin erlazio zuzena duen. Multzo honetatik landu daitezkeen edukiak beste pertsonen nortasunaren ezaugarriak errespetatzearekin harremana daukate. Izan ere, ezberdintasunak errespetatzea eta diskrimazioaren aurkako jarrerak bultzatzea. Horrekin lotuta, haurrek parte diren gizartearen harreman eta arau sozialak ezagutzeaz aritzen da, harreman sozial egokiak lortzeko asmoz. Azkenik, hirugarren multzoa dugu, zeinak hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin izena duena. Hemen, portaeren inguruko jakintzak eskuratzea bilatuko da.

Bestetik, hurrengo atal honetan, proiektuari esker zein kompetentzia lantzen diren zehaztuko da. Horretarako, 95/2022 Errege Dekretuak zehazten duena jarraitu izan da. Proiektuak lantzen dituen funtsezko kompetentzia eta kompetentzia espezifikoak, bai eta oinarrizko jakintzak ezagutzeko ikusi 3. Eranskina.

Kompetentzien atalarekin amaitzeko, GROP taldeak bost kompetentzia emozional desberdin proposatzen ditu. Lan honetan, orain, kompetentzia horiek bilatzen dituzten helburuak 4 multzo desberdinetan sailkatu dira. Hauen lanketa, proiektuaren jardueri esker bermatuko da eta hurrengoak dira (Bisquerra eta Pérez, 2007, oo. 5-6):

1. Nor bere buruaren kontzientzia garatzea.
 - a. Norberaren kontzientzia emozionala. Honen barne beste azpi kompetentzia desberdinak sartu daitezke: Sentimenduez jabetzea eta hauen kudeaketa egokia gauzatzen ikastea.
 - b. Norberaren balioespen egokia. Autoestimua eta autokontzeptuan eragina duena.
 - c. Norberarengan konfiantza izatea.
 - d. Loturak ezartzea. Identifikazioa, hots, emozio bakoitza dagokion izenarekin egoki identifikatu.

2. Autogestioa.

- a. Autoerregulazio emozionala, zeinetan pentsatu-ekin-sentitu jarraipena garatzea bilatuko den.
- b. Moldagarritasuna. Arazoak daudenean, hauei irtenbidea bilatzen saiatzea.
- c. Ekimena. Jardueretikiko initziatiba izatea.
- d. Baikortasuna. Proposatzen diren jarduera eta erronkekiko jarrera positiboa erakustea. Bai eta bizitzarekiko jarrera positiboa erakustea ere.
- e. Erresilientzia. Bizitzak ekar ditzazkeen egoera desatseginei aurre egiten jakiteko.

3. Konpetentzia soziala.

- a. Enpatia. Emozio honen garapena bermatzea, izan ere, bizitzarako eta harreman sozialetarako ezinbesteko elementua dugu.
- b. Adierazpen komunikazioa eta komunikazio errezeptiboa lantzea. Besteak entzuteko eta elkarrizketak hasteko eta mantzetzeko gai izateko gaitasuna garatzea.
- c. Gatazken kudeaketa eta prebentzioa. Gatazka sozialak eta pertsonen arteko arazoak identifikatzeko, hauei aurrea hartzeko edo horiei aurre egiteko gaitasuna garatzea.

4. Harremanen kudeaketa.

- a. Besteen garapena bilatzea. Laguntasuna eta bestelako emozioak sustatuz, konpetitibitatea bilatzen ez dutena baizik eta ikaskide guztien garapena helburutzat dutenak.
- b. Aldaketa katalizatzea
- c. Gatazken kudeaketa. Norberaren emozioekiko eta besteekin harremantzerakoan emozioen kudeaketa egokiaz gauzatuz.
- d. Talde-lana eta lankidetzak. Jardueretan ez da irabazlerik egongo, norberak bere erritmoan eta besteekin lankidetzan aritzean lortuko dute harrakasta. Horrela, denon garapena eta denek aurrera egitea bilatuko da.

Behin proiektuaren nondik norakoak zehaztu direla, proposamen didaktikoaren egitura azaldu behar da. Izan ere, jarduerak saio eta azpi-saio desberdinetan banatuak egongo dira, landuko den konpetentzia edo edukiaren arabera. Sei jarduera ezberdin

proposatzen dira eta guztira, 19 saioko proposamena da. Denboralizazioari dagokionez, hiruhileko batean gauzatuko da, honi esker, hilabete bakoitzean sei eta zazpi saio bitartean gauzatuko dira. Eskola bakoitzeko beharren arabera, irakasleek erabakiko dute zazpi saioko hilabetea zein izango den edota saioen antolaketa nola gauzatuko duten. Aproposena, urtarrietik martxora arte gauzatzea izango litzateke, izan ere, jaiegun gutxien dituzten hilabeteak dira. Asteko zein egunean gauzatuko den artituz gero, beste espezialitaterik (ingeleza, musika, psikogela...) ez duten egunean gauzatzea gomendatzen da.

Diseinatutako programazio didaktikoa, *Elkarlanetik ikasiz* izena dauka eta aipatu den moduan, kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionala lantzeko balio du. Eranskinetan azaltzen diren taulen bitartez (ikusi 4. Eranskina), proiektu honetarako proposatzen diren jarduerak azalduko dira. Horien barne informazio zehatzagoa emango da, hala nola, jardueraren azalpena edota beharrezko espazio eta materialak.

Proposamen hau gauzatzeko, egitura inductibo bat jarraitu da. Zehazki, Karplus eta Their (1967) proposatzen dute egituraren eredua, baina, LOMLOEak (3/2020) gauzatzen dituen moldaketak hartuta. Beraz, proposamen hau ikas-egoera baten egitura jarraituko du zeinetan hiru atal nabarmenduko diren: sarrera, garapena eta bukaera (ikusi 5. Eranskina).

Komenigarria da ere aniztasunari atal berezi bat eskaintzea, izan ere, gizarte multikulturalago, heterogeneoago eta aldaketetara moldatu beharreko batean bizi gara. Hortaz, proiektua behar hauei ere erantzuten jakin behar du, horretarako, Hezkuntza Premia Berezi (HPB) ezberdinak aztertu dira eta proiektua ohikoenetara moldatzeko zenbait aholku ematen dira. Hauek ikusteko, ikusi 6. Eranskina.

Amaitzeko, proiektuak zer nolako ebaluazioa jarraituko duen eta nola gauzatuko den zehaztu beharra dago. *Elkarlanetik ikasiz*, ebaluazio formatiboa izango du eredu, zeinak ikaskuntza prozesu osoan jarriko duen arreta; izan ere, irakaskuntza prozesua etengabe hobetzen bilatzen duena. Ez da nota bat ipintzea bilatuko baizik eta gutxinaka haurrek haien erritmoa jarraituz jarduerak gauzatzen dituzten heinean konpetentziak bereganatzen joatea.

Horretarako, irakasleek landa koaderno bat izango dute zeinetan haur guztien ekarpenak eta apunte garrantzitsuak hartzen joango diren, hortaz, ebaluazioa behaketa bidez gauzatuko da. Behin lauhilekoa amaitu dela eta haur guztiek jarduerak gauzatu dituztela, hurrengo taulan ikusi daitezkeen itemak betetzen dituzten edo ez ikusiko da (ikusi 7. Eranskina).

Ondorioak

Kulturartekotasunaren trataera hezkuntza emozionalaren bidez eskolan

Lan honen azken atal honetan, hasteko, formulariotik ateratako ondorioez arituko da. Lehenik, hitz gakoak aipatzerakoan atera diren zenbait hitzen inguruan aritu beharra dago. Izan ere, erantzun positiboak eta negatiboak jaso dira, hortaz, eztabaida dago partaideen artean. Ikusi daiteke nola azaleratzen diren hitzak, bi balentzia ezberdinetara doazen, eta kontrajarriak diren, hots, negatibotzat hartu daitekeen hitzak daude. Hitz positiboek dagokionez, termino horiek atera direla deritzot gizarteari kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionala terminoak aipatzerakoan bururatzen zaizkien hitzak direlako. Izan ere, zaintza eta ongizatearekin erlazionatzen diren terminoak dira, hortaz, *maitasuna* eta *errespetua* bezalako hitzak agertu dira.

Beste aldetik, *erronka*, *nekarria* eta *gogorra* hitzak atera dira ere. Horiek, negatibotzat hartu daitezke, konnotazio hori daukatelako; izan ere, horrelako pentsamenduak izaten ditugu gure aldetik aparteko ahalegina eskatzen duten ekintzei buruz ari garenean. Hau da, zeregina gauzatzea kostatzen zaigunean edo guretzat traba bat suposatzen duen gauza horietaz aritzean. Hori horrela izanik, kulturartekotasuna eta hezkuntza emozionalaz aritzeko termino horiek erabili izan duten irakasleek, gaia arazo gisa hartzen duten horiek dira.

Irakasleek termino horiek lantzearen onurak eta zailtasunak aurkeztu dituzte ere. Onuren artean, adibidez, komunikazio eraginkorra eta estrategia baliagarriak lantzen direla aipatu dute irakasleek. Izan ere, Goenecheak (2005) azaltzen duen moduan, elkarbizitza bultzatzeaz gain, elkarrekiko errespetua garatzen eta gatazken kudeaketan laguntzen dute ere. Beste onura gisa, enpatia aipatzen dute irakasleek; hori, hezkuntza emozionala eta kulturartekotasuna lantzeari esker ematen da. Gauzak horrela, kulturartekotasun ereduak garapenaren arlo emozionalean ere eragin onuragarriak dituzte (Esteban-Guitartek, 2012), ez hori bakarrik, konpetentzia sozialetan eragina izaten dute (Goleman, 1995).

Zailtasunei dagokienez, baliabide pertsonal eta material eskasak askotan aipatzen dira; hori horrela izanik, *Elkarlanetik ikasiz* proiektua diseinatu egin da irakasleei laguntzeko. Aipatzen den beste zailtasun bat estereotipoak dira; hori, benetan ezkutuko zailtasuna dugu, Hayesek (2013) aipatzen duen moduan, geletan kulturartekotasunaren inguruan aurkitzen den material gehiena estereotipatua dago eta horrek gaiaren lanketan aritzea oztopo gisa artizen du.

Estrategiei erreparatuz gero, interesgarriak dira haur Hezkuntzarako atera diren musika eta dramatizazioaren estrategiak. Hots, Epelde-Larrañagak (2011) horien onurak aipatzen ditu; izan ere, kultura ezberdinen erritmoak entzuteko aukera eskaintzeaz gain, norberaren sentimenduak azalertzeko aukera eskaintzen dute.

Baliabideez hitz eginda, gutxi entzundako baliabide interesgarri batzuk aipatu dituzte, zehazki, SKOLAE programa; IDU ikuspegia; Hezkidetzagunea eta Bizikasi. Baliabide horiek, berritzaileak dira eta berdintasunean oinarritutako balioetan oinarritutako hezkuntzarantz aurrera egin nahi duten irakasleei zuzenduta daude. Hasteko, SKOLAE programak proposatzen du hezkuntzatik helarazten diren haurrei zuzendutako eredu eta mezu sexistak orekatzea (Nafarroako gobernuak, 2019), gauzak horrela, bizikidetzako eredu positiboagoa bilatzen du eskola komunitate baketsua izateko asmoz. IDU (Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala) Berritzegune Nagusiak proposatzen du (2019) eta metodologia aktibo bat proposatzen du ikaskuntza-espazioen garapena gidatzeko asmoz.

Jarraitzeko, hezkidetzagunea online plataforma bat dugu, zeinak irakasleentzako material eta formazio desberdinak eskaintzen dituen; hortaz, irakasleek aipatzen duten ezjakintasun horrekin amaitzeko asmoz hona jo dezakete laguntza bila. Horrez gain, dokumentu ezberdinak aurki daitezke, hala nola, bizikidetzaren plana (Hezkidetzagunea, 2023). Bizikasi (2023), bullyinga eta erasoen aurkako laguntza eskaintzen du, beraz, zuzenean ez bada ere, kulturartekotasun eredu hezkidetzailleagoa izaten lagundu ahal gaitu. Atera diren errekursoetatik aipatu beharreko beste alderdi nabarmena bestelakoa da: irakasleek aipatu dituzten errekurso horiek, kulturartekotasuna lantzeko bideratuta daude, hots, ez dituzte aipatu edo ezagutzen hezkuntza emozionala lantzeko baliabiderik.

Bestetik, irakasle askok ohiko baliabide batzuk aipatu dituzte; horiek horrela, ipuinak, abestiak, rol-playing-ak, txotxongiloak izan dira. Horiek, egunerokotasunean irakasle jardunean erabiltzen diren materialak ditugu, eta sinpleak izateaz gain, aurkitzeko errazak izaten dira ere. Beraz, eskola batzuk daukaten material eta denbora falta dela eta, irakasleek ezagunenak diren baliabideetara jotzeko joera daukate.

Formulariotik atera den azken ondorioa, irakasleek aipatzen duten baliabide falta da, gauzak horrela, *Elkarlanetik ikasiz* proposamen didaktikoa diseinatzea beharrezkoa ikusi da. Beharra sumatu duten irakasleei erantzun bat emateko asmoz.

Elkarlanetik ikasiz proiektuaren ondorioak

Bestetik, aritu beharreko beste ondorioez, proiektuaren ingurukoak dira. Lehenik eta behin, eskoletan proiektu hau aurrera eramatearen ekarpenaz hitz egingo da, aurrera eramateko aukera ez izan arren. Proiektu honek planteatzen du hezkuntza emozionala eta horrek kulturartekotasunari ekar diezazkiokeen onurak erabiltzea haur enpatikoagoak eta aniztasunarekiko toleranteagoak garatzeko. Hortaz, mundu baketsuagoa eta errespetuzkoagoa bilatu nahi du, non herritarren gaitasunak pisu eta balio handiagoa izango dute. Izan ere, marko teorikoan aipatu den bezala, hori da kulturartekotasunak daukan ouren bat, Goenecheak (2005) dioen moduan. Horrez gain, proiektu honek adin txikiko haurrak kontzientziatu nahi ditu beraienak ez diren kulturak errespetatzearen garrantziaz. Zehazki, pertsona horien lekuan jartzeaz, eta, beraz, enpatizatzeaz eta haiekin batera proiektu desberdinen bitartez esperimentatzeaz.

Horren ildotik, proiektu hau aurrera eramatearen garrantziaz aritu beharra dago. Izan ere, gure gizartean gero eta kultura desberdin gehiago daude, migrazio-prozesu eta fluxuak gero eta nabarmenagoak dira, eta, elkarri lotutako planeta batean bizi gara. Horregatik, funtsezkoa da inguratzen gaituzten kulturei buruz gehiago ikastea eta horiekin nola tratatu behar dugun jakitea. Gainera, txikitatik egiteak haurrei gaiaren inguruan kontzientziatzen lagunduko die. Hots, kulturarteko errespetuzko proiektuak egiten badira, materialaren ikuspegi manipulatio eta dibertigarritik abiatuta, haurrak gizartearentzat berebiziko interesa duten gaitan inplikatzeko lortzen da. Hori horrela izanik, gizarte ez-arrazista bat lortzeko bidea gauzatzen da, bai eta kulturen hazkundera eta integrazioan lagunduko luke (Díez, 2004; Villodre, 2016).

Zoritxarrez, proiektu hau aurrera eramatea ezinezkoa izan da. Izan ere, bateraezina zen gauzatu beharreko Practicum IIIarekin. Izan ere, proiektua gauzatzeko beharrezkoa zen ikastetxe batean hiru hilabeteetan zehar egotea. Ez hori bakarrik, praktiketan egondako bi hilabeteetan, ez zegoen denbora fisiko nahikorik bi proiektu desberdin diseinatu eta gauzatzeko.

Hala ere, hausnarketa gisa, aurrera eramanez gero, eman zitzaketen zailtasunak edota mugak aipatuko dira. Lehenik eta behin, familien partaidetza txikia edo nulua izango litzateke. Azken finean, proiektu osoa hainbat kulturetako familien eta pertsonen parte-hartze aktiboaren arabera egituratu da. Beraz, pertsona horiek ez balute proiektuan parte hartu nahi, horrek aldaketa eta zailtasun handiak ekarriko lituzke. Proiektua aurrera eramanez badaiteke ere, ez dugu hezkuntza-komunitatea, familiak, alegia, inplikatzeko eta, horrez gain, jarduerak orain egin beharko lituzketen pertsonak herrialdeko kultura

hegemonikoko pertsonak izango lirateke. Horrek, eurenak ez diren eta behar adina ezagutzen ez dituzten kulturei buruzko informazioa irakastea eragingo luke. Horregatik, proiektuak desberdin egiten duen esentzia guztia galduko luke.

Familien parte-hartzea alde batera utzita, kontuan hartu beharreko beste muga bat haurrak dira. Izan ere, beraiek eragiten dute proiektua desberdina izatea; beraz, proiektuan aktiboki parte hartzen ez badute, oztopo handia izango litzateke, eta proiektuak ez lituzke jarritako helburuak beteko. Izan ere, ikasleek ez lituzkete hasieran zehaztutako gaitasunak eta helburuak eskuratuko. Aipatu beharreko azken zailtasuna materialak dira. Familien eta haurren parte-hartze aktiboa izan dezakegu, baina proposatutako materialak eskura ez baditugu, jarduera horiek ezingo dira egin. Hala ere, aipatu behar da ez direla lortzeko zailak diren materialak eta horrelako proiektuetarako ikastetxeek aurrekontua eta dirua dutela gordeta. Horregatik, muga gisa aurkezten bada ere, erraz konpon daiteke.

Jarraitzeko, hobetu beharreko zenbait alderdi ere aipatu behar daude. Hasteko, proiektua arrakastatsua izanez gero, kultura gehiago gehitzea eta horiek lantzea proposatu daiteke. Hori horrela, jarduera gehiago diseinatzea proposatuko lirateke. Horri esker, proiektu luzeagoa izango genuke, zeinak urte osoan zehar hezkuntza emozionala eta kulturartekotasuna lantzea ahalbidetuko lukeena. Jarduerei dagokienez, aipatzekoa da hobekuntza gisa proposatuko litzatekeela jarduera horiek ahalik eta manipulatioenak izatea etorkizunari begira. Horri esker, haurrek modu autonomoan eta esperimentazioaren bidez eskuratuko lituzkete ezagutzak.

Hobekuntzen hariari jarraituz, auzo-erakundearen harremana izango litzateke aipatu beharreko beste bat. Horregatik, familiez gain, auzoa jardueretara gonbidatzea ere gomendatzen da. Eskolan dagoen aniztasuna auzoan islatzen da, beraz, proiektuan parte izatea, onuragarria izan daiteke. Azkenik, kultur izebergaren beste alderdi kultural batzuetan sakontzea proposatzen da. Proiektua kulturartekotasunarekin lehen hartu-eman izateko eta hasiera gisa gaia lantzeko modu egokia da, baina, gaia lantzen jarraitu nahi bada, hainbat kultura-alderditan sakontzea gomendagarria litzateke. Hau da, kultur izebergaren gainazalean geratu ordez, beste alderdi batzuk jorratzea, hala nola gorputz-hizkuntza, genero-rolak, autoestimua, eta abar.

Azkenik, aipatu behar da proiektu honek hezkuntza emozionala eta kulturartekotasuna erlazionatzea dakarrela, gizarte honetan dauden kulturekiko tolerantzia eta errespetu hobe lortzeko asmoz. Proiektua, kultura horiengana hurbildu nahi da, bai eta horiei denbora eskaini nahi die. Horri esker, haurrek bizi diren herrialdeko kultura

ez-hegemonikoari buruzko oinarritzko ezagutzak bereganatuko lituzkete. Horrela, telebistako hedabideek edo sozializazioan dauden gainerako alderdiek sortu dituzten kultura estereotipoak hautsi daitezke. Gainera, proiektu hau besteekiko desberdina dela esan dezakegu, kultura horietakoak diren pertsonak gauzatzen baitute. Izan ere, jardueretan ikusi izan den moduan, familiak liburuen irakurketan, sukaldean edota antzerkian lagundu izan dute. Hori horrela izanik, landu nahi diren edukiak modu zuzenean gauzatzea ahalbidetzen du. Ez hori bakarrik, hurrek jasotzen duten informazioa lehenengo mailako iturrietatik dator, horrek, informazio egiazkoa izatea eragiten du, *fake news* horiek ekidituz. Horrez gain, informazioa pertsonalagoa egiten du; horrek, lagundu egiten du gizarte honen aurreiritziak hausten, eta hurrek harreman pertsonalagoa sor dezakete pertsona horiekin.

Erreferentziak

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 9. zenbakia*, 2016 urtarrilak 15.

Aguado, T. (2003). *Pedagogía Intercultural*. McGraw Hill.

Arroyo-González, M. J. (2013). La educación intercultural: un camino hacia la inclusión educativa. *Revista de Educación Inclusiva*, 6(2), 144-159

Bar-On, R. (2006). The Bar-On model of emotional-social intelligence (ESI). *Psicothema*, 18, 13-25.

Bau Diaz, S. (2017ko Otsailaren 13an). Gestión de las emociones (irudia). Amadag. <https://amadag.com/gestionando-nuestras-emociones-inteligencia-emocional/>

Berritzegune nagusia. (2019). *IDU ikuspegia*. Berritzegunea, Carmen Couto eta Lore Aretxaga. <https://www.amarauna.euskadi.eus/es/recurso/ikaskuntzaren-diseinu-unibertsala-idu---dua-ren/2c112365-857a-4714-b0fc-d817da74d936>

Besalú, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación*. Los libros de la Catarata.

Bisquerra Alzina, R., eta García, E. (2018). La educación emocional requiere formación del profesorado. Participación educativa. *Revista del Consejo Escolar del Estado*, 5(8), 15-27.

- Bisquerra, R., eta Pérez, N. (2007). Las competencias emocionales. *Educación XXI*, 10, 61-82.
- Bizikasi. (2023). *Bizikasi*. Eusko Jaurlaritza. <https://bizikasi.euskadi.eus/es/inicio>
- Clinicaemae. (206ko azaroaren 24ean). Regulación emocional (irudia). Clinicaemae. <https://clinicaemae.com/regulacion-emocional/>
- Cortina, A. (1999). *Ciudadanos del mundo*. Alianza.
- Díez, M. L. (2004). Reflexiones en torno a la interculturalidad. *Cuadernos de antropología social*, 19, 191-213.
- Epelde-Larrañaga, A. (2011). La interculturalidad en la educación a través de la música infantil. *DEDiCA Revista De Educação E Humanidades (dreh)*, 1, 273–292.
- Esperón, C. S., eta Suárez, A. D. (2007). *Manual de diagnóstico y tratamiento del TDAH*. Médica Panamericana.
- Esteban-Guitart, M., Rivas, M. J., eta Pérez, M. R. (2012). Empatía y tolerancia a la diversidad en un contexto educativo intercultural. *Universitas Psychologica*, 11(2), 415-426.
- EUSTAT. 2021. La población extranjera residente en la C.A. de Euskadi aumenta en casi 25.000 personas entre 2016 y 2021. Hurrengo linkatik berreskuratua: https://www.eustat.eus/elementos/la-poblacion-extranjera-residente-en-la-ca-de-euskadi-aumenta-en-casi-25000-personas-entre-2016-y-2021/not0019270_c.html
- Fernández-Berrocal, P., eta Extremera-Pacheco, N. (2005). La Inteligencia Emocional y la educación de las emociones desde el Modelo de Mayer y Salovey. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado* 19(3), 63-93.
- Fernández-Martínez, A. M., eta Montero-García, I. (2016). Aportes para la educación de la Inteligencia Emocional desde la Educación Infantil. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 14(1), 53-66.

Galaburda, A. M., eta Cestnick, L. (2003). Dislexia del desarrollo. *Revista de Neurología*, 36(1), 3-9.

García Izquierdo, A. L., García Izquierdo, M., eta Ramos Villagrasa, P. J. (2007). Aportaciones de la inteligencia emocional y la autoeficacia: Aplicaciones para la selección de personal. *Anales de Psicología*, 23(2), 231–239.

Goenechea, C. (2005). *La diversidad cultural en la escuela gallega*. Xunta de Galicia.

Goleman, D. (1995). *Inteligencia Emocional*. Kairós.

Grasa, R. (1988). El racismo en los libros infantiles y juveniles. *Cuadernos de Pedagogía*, 163, 93-94.

Hayes, N. (2013). Los estereotipos culturales como obstáculo para la convivencia en la escuela inclusiva. *Tejuelo. Didáctica de la lengua y la literatura. Educación*.

Hezkidetzagunea. (2023). *Hezkidetzagune*. Eusko Jaurlaritzan. <https://hezkidetzagune.euskadi.eus/es/hasiera>

Ikuspegi: Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2022). Población de origen extranjero en la CAE 2022. *Ikuspegi. Panorámica*, 84, 1-11. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan84cas.pdf>

Karplus, R., eta Their, D. H. (1967). *A new look at elementary school science*. Rand McNally.

Lagunes, E. (2022ko maiatzaren 16an). Emociones negativas (irudia). Prometeo. <https://www.prometeo-terapia.com/emociones-negativas-toxicas/>

Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. (BOE núm 340, de de 30 de diciembre de 2020, páginas 122868 a 122953).

López, I. M. L., eta Guinea, C. P. (2013). La importancia de los gestos en el aula multicultural. Ventajas y desventajas. I. López eta C. Guinean (Edk.) *Plurilingüismo y enseñanza de ELE en contextos multiculturales: XXIII Congreso Internacional*

- ASELE (oo. 518-526). Asociación para la Enseñanza del Español como Lengua Extranjera.
- Losmellosymaria. (2014ko apirilaren 10ean). El respeto (irudia). Wordpress.com-etik aterata. <https://losmellosymaria.wordpress.com/2014/04/10/el-respeto/>
- Martí, M. eta Salomo, X. (2014ko urtarrila). *Toni i tina* liburu bilduma (irudiak). La Casa del Libro.
- Mayer, J. eta Salovey, P. (1997). What is emotional intelligence?. P. Salovey eta D. Sluyteren (Edk.), *Emotional development and emotional intelligence: Educational implications* (oo. 3-34). Harper Collins.
- Monserrat, D. P., eta Estarellas, J. R. S. (2013). Cultura y pertenencia: el tratamiento didáctico de contenidos histórico-culturales en las aulas valencianas de Educación Infantil y Primaria. *Didáctica de las Ciencias Experimentales y Sociales*, 25, 65-83.
- Morales, R. G. (2005). Cambios curriculares en Ciencias Sociales para responder a la multiculturalidad. C. García, E. Gómez, M^a. D. Jiménez, J. M^a. López, JM Martínez y C. Moreno-n (Edk.), *Enseñar Ciencias Sociales en una sociedad multicultural: Una mirada desde el Mediterráneo*,(oo. 305-344), Los Autores.
- Nafarroako Goberna. (2019). *SKOLAE programa*. Nafarroako programa. <https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1325202/Libro+SKOLAE+CAST+web.pdf/1ba58d8b-d13b-4f2d-0fc1-9c5e99d5946e>
- Palacios, M. A. (2011). Estrategias prácticas de intervención para el desarrollo de procesos cognitivos en trastornos generalizados del desarrollo. *Participación Educativa*, 18, 91-100.
- Pascual-Sevillano, M. Á., García Rodríguez, M. S., eta Vázquez-Cano, E. (2019). Atención a la diversidad e inclusión en España. *Sinéctica*, 53, 1-17.
- Real Decreto 95/2022, de 1 de febrero, por el que se establece la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Infantil. (BOE nº28 de 02/02/2022).

- Retortillo Osuna, Á., Ovejero Bernal, A., Cruz Souza, F. R., Arias Martínez, B., eta Lucas Mangas, S. (2006). Inmigración y modelos de integración: entre la asimilación y el multiculturalismo. *Revista Universitaria de Ciencias del Trabajo*, 7, 123-139.
- Rubin, A. (2022ko abenduaren 16an). Frases de actitud positiva (irudia). Lifeder. <https://www.lifeder.com/frases-de-actitud-positiva/>
- Salovey, P., eta Mayer, J. (1990). Inteligencia emocional. *Imagination, Cognition and Personality*, 9(3), 185-211.
- Soldevila, L. (2015eko azaroaren 5ean). Dos nuevas As: Automotivación y Autoeficacia (irudia). OBS. <https://www.obsbusiness.school/blog/dos-nuevas-automotivacion-y-autoeficacia>
- Universitat de Barcelona. (2015eko azaroaren 16an). La mediación para resolver conflictos, en un ciclo de ponencias en la Facultad de Educación (irudia). https://www.ub.edu/web/ub/es/menu_eines/noticias/2015/11/027.html
- Villodre, M. D. M. B. (2016). Formación para la ciudadanía intercultural en educación infantil. ¿Qué sucede en las universidades valencianas?. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 20(2), 328-348.
- Walsh, C. (2010). Interculturalidad crítica y educación intercultural. *Construyendo Interculturalidad Crítica*, 75(96), 167-181.
- Yackow, A. (2020ko uztailaren 31an). Respeto hacia las culturas (irudia). Bideo batetik ateratako kaptura. <https://www.youtube.com/watch?v=3fulU69-nGY>

Eranskinak

1. **Eranskina.** *Irakasleei on-line formatuan helarazitako formularioa, hutsik.*

1. Adina (Galdera irekia)
2. Generoa
 - a. Emakumea
 - b. Gizona
 - c. Ez binarioa
 - d. Bestelakoak
3. Hezkuntzan izandako esperientzia urteak (Galdera irekia)
4. Oinarrizko formazioa (Galdera irekia)
5. Haur edo Lehen hezkuntzan irakasten zaude?
 - a. Haur Hezkuntzan
 - b. Lehen Hezkuntzan
 - c. Bietan
6. Kulturartekotasuna, bizikidetza, hezkuntza emozionala eta emozioak entzuterakoan, zeintzuk dira bururatzen zaizkizun lau hitz edo emozio? (Galdera irekia)
7. Aipatutako terminoak (Kulturartekotasuna, bizikidetza, hezkuntza emozionala eta emozioak) eskolan lantzeak ekar ditzakeen onurak eta zailtasunak aipatu (Galdera irekia)
8. Emozioak kulturartekotasuna eta bizikidetza lantzeko erabili izan dituzu inoiz zure irakasle jardunean?
 - a. Bai
 - b. Ez
9. Kulturartekotasun ikuspegia hobetzeko bidean eraginkorrak izan daitezkeen estrategiak aipatu (Galdera irekia)
10. Aipatutako terminoen (Kulturartekotasuna, bizikidetza, hezkuntza emozionala eta emozioak) inguruan baliabideren bat ezagutzen duzu?
 - a. Bai

b. Ez

11. Erantzuna baiezkoa izan bada, zerrendatu itzazu (Galdera irekia eta hautazkoa)

12. Bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta hezkuntza emozionala gelan sustatzeko zer beharko zenuke? (baliabideak, materialak, formakuntzak...) (Galdera irekia)

2. Eranskina. *Elkarlanetik ikasiz proiektua haurrengan bultzatu nahi dituen helburuak.*

Helburuen kodifikazioa:

Helburu orokorrak.

HO1. Emozioen identifikazioa bereganatzea. Hau da, loturak ezartzea izena eta sentimenduaren artean. Horrez gain, norberak emozio horiek identifikatzeko gai izatea, bai eta hauek zertaz doazen eta aurre nola egin ahal dieten ikasi. Hitz egiterakoan, terminologia egokia erabiltzea hizkuntza emozionalari dagokionean.

HO2. Kultura ezberdinen inguruko jakintzak zabaltzea. Honen barne, lurralde ezberdineko janari ezberdinak ezagutzea eta prestatzen ikastea; leku ezberdinekiko zein beste kulturekiko errespetua garatzea; eta herrialde desberdinetakoak diren pertsonekin harremantzen ikasi. Gurea ez den kultura ezberdinen inguruan gehiago ikastea.

HO3. Talde lana eta lankidetzatza garatzea. Izan ere, beste klase-kideak haien artean lagundu daitezke denok aurrera egin dezaten eta ikasi dezaten.

HO4. Enpatia emozioa garatzen eta esperimentatzen hastea. Izan ere, besteen lekuan ipintzea eta horrek sorrarazten diena azalaratzea.

HO5. Erregulazio emozionala landu. Horrekin erlazionatuta, barruan dugun hori azaleratzen ikasten hastea, honi esker, gertatu daitezkeen gatazken kudeaketan eta prebentzioan jardungo dira.

HO6. Autoestimua landu. Izan ere, haurrek bere buruengan konfiantza gehiago hartzen joatea. Horrez gain, estresa, antsietatea etab. bezalako emozioak erregulatzeko estrategietan trebatu.

Bestelako helburuak.

HB1. Jardueretikiko ekimena izan eta garatu.

HB2. Baikortasuna landu. Horren ildotik, automotibatzekeo estrategiak garatu bai eta bizitzan sentitzen ditugun emozioekiko jarrera positiboa garatzea.

HB3. Adierazpen komunikazioa eta komunikazio errezeptiboa lantzea.

HB4. Gutxinaka, irakurmen gaitasuna hobetzea eta honekiko zaletasuna sorraraztea edo piztea.

HB5. Janari ezberdinak eragiten dizkiguten emozioei izena ipintzea. Horrekin erlazionatuta, norberak modu artistiko eta kinestetiko batean bere emozioak islatzen ikastea.

HB6. Emozio negatiboak azaleratzeko estrategiak ikastea.

Helburuak												
	HO1	HO2	HO3	HO4	HO5	HO6	HB1	HB2	HB3	HB4	HB5	HB6
1. jarduera: emozioen gurpila	X		X	X	X		X	X	X			
2. jarduera: liburuen irakurketa	X				X			X		X		
3. jarduera: jakiak sentituz	X	X									X	
4. jarduera: musikaltasuna eta dantza		X			X	X					X	X
5. jarduera: antzeztuz norbanakoa errepresentatu	X	X		X		X		X				

3. Eranskina. *Konpetentzien kodifikazioa eta jardueretan hauetan ematen den identifikazioa.* Real Decreto 95/2022 zehaztutakoaren arabera.

Curriculumaren kodifikazioa.

Real Decreto 95/2022, de 1 de febrero, por el que se establece la ordenación y las enseñanzas mínimas de la Educación Infantil. (BOE nº28 de 02/02/2022).

Funtsezko konpetentziak.

(FK1) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

(FK2) Gaitasun plurilinguea.

(FK3) Matematikarako eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako gaitasuna.

(FK4) Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko gaitasuna.

(FK5) Herritarren gaitasuna.

(FK6) Ekintzailtzarako gaitasuna.

(FK7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako gaitasuna.

1. konpetentzia. Harmoniako hazkundera

Gaitasun espezifikoak:

- **GE11.** Gaitasun espezifikoa 1: Gorputzaren ezagutzan eta kontrolean eta hainbat estrategia bereganatzen aurrera egitea, ekintzak inguruneko errealitatera modu seguruan egokituz, autoirudi doitua eta positiboa eraikitzeko.
- **GE12.** Gaitasun espezifikoa 2: Beren emozioak pixkanaka ezagutzea, adieraztea eta erregulatzea, beharrak eta sentimenduak adieraziz, ongizate emozionala eta segurtasun afektiboa lortzeko.
- **GE13.** Gaitasun espezifikoa 3: Ereduek, arauak eta ohiturak hartzea, haien aukeretan eta lorpen-sentimenduetan konfiantza garatuz, bizimodu osasungarria eta ekosozialki arduratsua sustatzeko.
- **GE14.** Gaitasun espezifikoa 4: Elkarrekintza sozialak berdintasun-baldintzetan ezartzea, adiskidetasunaren, errespetuaren eta enpatiaren garrantzia baloratuz, nork bere nortasuna eraikitzeko, balio demokratikoetan eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta.

Oinarrizko jakintzak:

- I. **OJ11.** Gorputza eta haren kontrol progresiboa.
- II. **OJ12.** Garapen eta oreka afektiboa
- III. **OJ13.** Norberaren burua zaintzeko eta ingurunea zaintzeko bizi-ohitura osasungarriak.
- IV. **OJ14.** Interakzio sozioemozionala ingurunean. Bizitza besteekin batera.

2. kompetentzia. Ingurunea aurkitzea eta aztertzea

Gaitasun espezifikoak:

- **GE21.** Gaitasun espezifikoa 1: Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta horien arteko loturak ezartzea, miaketaren, zentzumen-manipulazioaren, tresna errazak maneiatzearen eta trebetasun logiko-matematikoak garatzearen bidez, munduaren ideia gero eta konplexuagoa aurkitzeko eta sortzeko.
- **GE22.** Gaitasun espezifikoa 2: Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak pixkanaka garatzea, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta sortzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.
- **GE23.** Gaitasun espezifikoa 3: Naturako elementuak eta fenomenoak ezagutzea, naturan eragiten duten ohiturekiko interesa erakutsiz, pertsonen bizitzan erabilera jasangarriak, zaintzak eta ingurunearen kontserbazioak duten garrantzia balioesteko.

Oinarrizko jakintzak:

- I. **OJ21.** Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektu, material eta espazioen azterketa sortzailea.
- II. **OJ22.** Ingurunean esperimendatzea. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa eta sormena.
- III. **OJ23.** Ingurune fisikoan eta naturalean ikertzea. Zaintza, balorazioa eta errespetua.

3. kompetentzia. Komunikazioa eta errealitatearen irudikapena

Gaitasun espezifikoak:

- **GE31.** Gaitasun espezifikoa 1: eguneroko egoeretan elkarri eragiteko interesa adieraztea, bere komunikazio-errepertorioa esploratuz eta erabiliz, bere beharrak eta asmoak adierazteko eta ingurunearen eskakizunei erantzuteko.

- **GE32.** Gaitasun espezifikoa 2: Mezuak eta irudikapenak interpretatzea eta ulertzea, norberaren esperientziako ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituta, ingurunearen eskaerei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeko.
- **GE33.** Gaitasun espezifikoa 3: Mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean sortzea, hainbat hizkuntza erabiliz, bakoitzaren kodeak ezagutuz eta komunikazio-premia desberdinei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak aztertuz.
- **GE34.** Gaitasun espezifikoa 4: Norberaren ekimenez, testu idatziekin lotutako jardueretan parte hartzea, haien funtzionaltasuna eta zenbait ezaugarri ulertzeko interesa eta jakin-mina erakutsiz.
- **GE35.** Gaitasun espezifikoa 5: Ingurunean dagoen hizkuntza-aniztasuna eta beste kultura-adierazpen batzuk baloratzea, komunikazio-estrategiak eta kultura-ezagutza aberasteko.

Oinarrizko jakintzak:

- I. **OJ31.** Asmo eta interakzio komunikatiboak.
- II. **OJ32.** Hizkuntzak eta hiztunak.
- III. **OJ33.** Ahozko komunikazioa: adierazpena, ulermena, elkarriketa.
- IV. **OJ34.** Hizkuntza idatzira hurbiltzea
- V. **OJ35.** Literatura-hezkuntzara hurbiltzea
- VI. **OJ36.** Musika-hizkuntza eta -adierazpena
- VII. **OJ37.** Hizkuntza eta adierazpen plastikoak eta bisualak
- VIII. **OJ38.** Gorputz-hizkuntza eta -adierazpena
- IX. **OJ39.** Alfabetatze digitala

Funtsezko kompetentziak.							
	FK1	FK2	FK3	FK4	FK5	FK6	FK7
1. jarduera: emozioen gurpila	X		X	X	X	X	
2. jarduera: liburuen irakurketa	X			X	X	X	

3. jarduera: jakiak sentituz	X	X	X	X	X	X	X	X
4. jarduera: musikaltasuna eta dantza	X	X		X	X	X	X	X
5. jarduera: antzeztuz norbanakoa errepresentatu	X	X		X	X	X	X	X

Konpetentzia espezifikoak.												
	1. konpetentzia				2. konpetentzia			3. konpetentzia				
	GE11	GE12	GE13	GE14	GE21	GE22	GE23	GE31	GE32	GE33	GE34	GE35
1. jarduera: emozioen gurpila	X		X	X				X		X		
2. jarduera: liburuen irakurketa		X						X	X		X	
3. jarduera: jakiak sentituz	X			X	X			X				X
4. jarduera: musikaltasuna eta dantza	X	X		X	X			X		X		
5. jarduera: antzeztuz norbanakoa errerepresentatu	X	X			X			X	X	X		X

Oinarrizko jakintzak																
	1. konpetentzia				2. konpetentzia			3. konpetentzia								
	OJ11	OJ12	OJ13	OJ14	OJ21	OJ22	OJ23	OJ31	OJ32	OJ33	OJ34	OJ35	OJ36	OJ37	OJ38	OJ39
1. jarduera: emozioen gurpila	X	X		X	X			X		X					X	

2. jarduera: liburuen irakurketa		X						X	X	X		X				
3. jarduera: jakiak sentituz	X			X	X	X		X	X	X						
4. jarduera: musikalta suna eta dantza	X	X		X	X			X		X			X		X	
5. jarduera: antzeztuz norbanak oa erreprese ntatu	X			X	X			X	X	X			X	X	X	


4. Eranskina. *Elkarlanetik ikasiz proiektuaren jarduerak, bai eta horretarako beharrezkoak diren materialen azalpena, besteak beste.*

1. jarduera: Emozioen gurpila.	
Jarduera	<p>Lehenengo jarduera honetan aurrezagutzen detekzioa gauzatzeko bidean, bestelakoa gauzatu da; emozioen bingoa. Hots, material hau prestatuko dugu eta jarduerarekin hasi aurretik eta gaia landu baino lehen, bi partida jolastuko dira. Honi esker, gaiaren inguruan zenbat dakiten ikusteko aukera eskainiko du. Horrez gain, zein emozio jada identifikatzen dakiten, etab. bezalako datuak ere eskainiko ditu. Aurrezagutzen detekzioa gainera modu dinamiko batean gauzatu da: jolasaren bitartez. Hori motibatuzko pizgarri moduan aritzen lagunduko du.</p> <p>Jarduera honek, emozioak lantzea izango du helburu nagusitzat. Horretarako, gurpil moduko erruleta bat sortuko dugu, honen barne, emozio desberdinak ageriko dira (irakasle eta ikasleek aukeratzen dituztenak). Proposamen honetarako, emozio hauek landuko dira: poza, tristura, beldurra, inbidia, sorpresa, nazka, konfiantza, lotsa eta kulpa. Emozio sinpleak daude baina beste batzuk aldiz, konplexutasun maila handiagoa eskatzen dute Horrela, hurrek emozio hauek ezagutzen ez badituzte, irakaslea hauek aurkezteko aukeraz baliatuko da.</p> <p>Emozio hauek, izenarekin edo irudiarekin errepresentatu daitezke (edo biak), izan ere, loturak egitea bilatuko da. Behin gurpila eginda dagoela, hurrei aurkeztuko zaie eta txandaka ezarri den ordena errespetatuz haur bakoitzak gurpila biratuko du. Haur horrek, egokitu zaion emozioa bere hitzekin azalduko du eta emozio horrekin bizitako adibide bat eman beharko du. Behin amaitu duela, hurrengo hurrera pasako gara argibide berdina jarraituz. Azkenik, hausnarketa gauzatu da jarduerari itxiera emateko.</p>
Denboralizazioa eta espazioa	<p>Jarduera hau gauzatzeko hiru saio desberdin erabiliko ditugu. Lehenengo saioa aurrezagutzak detektatzeko eta gurpila bera prestatzeko erabiliko dugu, hau, arte ekosisteman gauzatu da eta hurrek beraiek gauzatu dute irakaslearen gidaritzarekin. Ariketa hau gauzatzeko, 20 minutu bingoan jolasteko emango dugu, gurpila prestatzeko aldiz, ordu bat emango diegu, horrela, haur guztiek parte-hartu dezaten bermatuko dugu daukaten erritmo desberdinak errespetatuz.</p> <p>Bigarren saioan, jolasa bera gauzatzeko erabiliko da. Hau, haurren gelan gauzatu da eta 30 minutu hartuko ditugu. Haur guztiak behin hitz egin dutela ziurtatuko dugu.</p> <p>Azken saioa, hausnarketa gauzatzeko bideratuko da. Hurrek lasaitasun gunean aurrera eramango dute eta jardueraren inguruan hausnartuko dute. Hemen, zer iruditu zaien, nola sentitu diren, etab bezalako gakoak landuko dituzte.</p>
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Emozioen bingoa - 2 kartulina. Gurpilaren eredua gauzatzeko. - Artaziak - Margoak - Irakaslea

Ebaluazioa	<p>Beste atalean zehaztu den moduan, ebaluazio jarraitua eta behaketaren bidez gauzatuko da. Horretarako, aurretik zehazturiko itemak betetzen diren edo ez behatuko da. Horrez gain, item berriak gehituko ditugu jarduera honetarako bideratuak daudenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egokitutako emozioari adibide egokia eman dio? - Gurpilaren sorkuntzan parte-hartu dute? - Ezarritako txandak errespetatzeko gai izan dira? - Jarduera gustatu zaie? - Beste ikaskideek laguntza behar izan dutenean, haien laguntza eskaini diote? - Entzute aktiboaz aritu dira?
-------------------	---

2. jarduera: liburuen irakurketa

Jarduera	<p>Jarduera honetan, saio desberdinetan emozio desberdinekin lotutako liburuen irakurketa gauzatuko da. Hauek, eskolaren parte diren guraso ezberdinak irakurriko dituzte (irakaslearen gidaritzarekin), horrela haurrak hauen irakurketa gauzatzerakoan motibatuagoak egongo dira. Liburu bakoitzaren ondoren, hausnarketa bat gauzatuko da. Aukeratutako liburuak, azpian materialen atalean zehaztuak ageri dira. Behin hauen irakurketa gauzatu dela, haurren irakurketa txokoa utzi daiteke, horrela, nahi izanez gero hauek berriz irakurtzeko edo begiratzeko aukera izango dute.</p> <p>Liburuen irakurketekin hasi aurretik, lehenengo pausuan ikusiko den moduan haurren aurrezagutzak detektatuko dira. Horretarako portada aztertuko da eta haurren buru eskemetan dagoen informazioa entzuteko aukera eskainiko du. Pausu hau garrantzitsua da, hots, haur bakoitza gaiaren inguruan dituen ezagutzak neurtzeko aukeraz gain, zein emozioan edo irakurketa gauzatzerakoan arreta non ipini behar dugun jakiteko aukera ematen du.</p> <p>Hausnarketa hauetan, irakurritako emozioaz arituko gara baina zehatzera jaitziko gara. Hau da, liburuaren irakurketaz baliatuko gara emozio positibo edo negatibo hori hobeto ezagutzeko. Hots, hau identifikatzen ikasiko dute; emozio hori nola erregulatu daitekeen jakin dezaten tresnak eskainiko zaizkie; emozio negatiboak positibo bilakatzeko estrategiak era eskainiko zaizkie, etab. Orokorrean beraz, emozioa liburuaren bitartez ezagutuko dugu eta ondoren horretan sakonduko dugu. Horretarako 3 pausu jarraituko ditugu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Portada aztertu. Hau, aurrezagutzen detekzioa gauzatzeko erabiliko da, izan ere, haurrek izenburua irakurri, haien aurreiritziak partekatu, zertaz arituko den inguruan hitz egin, etab. bezalako datuak eman eta partekatuko dituzte. 2. Liburuaren irakurketa. Lehen aipatu bezala, behar izanez gero gelditzen joango da haurrek ezagutzak bereganatzen eta ulertzen doazela ziurtatzeko. 3. Amaierako "hausnarketa". Haurrek zer bereganatu duten inguruan informazioa jasoko da. Horretarako galdera ezberdinak proposatu daitezke, hala nola, nola sentitu gaitzke zainduak (maitasunaz aritzerakoan).
Denboralizazioa eta espazioa	<p>Jarduera honetarako sei saio gauzatuko dira, izan ere, saio bat liburu bakoitzeko. Saio berearen barne, hausnarketa gauzatuko da. Liburuen irakurketa guztiak irakurketa edo asanblada txokoa aurrera eramango dira. Irakurketarako 15 minutu inguru hartuko dira,</p>

	<p>irakaslearen erritmoaren eta liburua kontatzeko estiloaren arabera. Hausnarketarako 10-15 minutu erabiliko dira, haurrak nekatu ez daitezen.</p>
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Liburuak berak. Horretarako proposamena Meritxell Martí eta Xavier Salomok sortutako “<i>toni i tina</i>” liburu bilduma erabiltzea da. Honen barne, emozio desberdinak lantzen dira haurren egunerokotasuna eredutzat hartuta. Bildumaren izenburu desberdinak hauek izango lirateke: <ul style="list-style-type: none"> - Los celos vienen y van. - Que rabia de juego. - Fuera vergüenza. - Una tormenta de miedo. - Adios, tristeza. - Vuela, vuela, sorpresa. <div style="text-align: center;">  <p>Iturria: La casa del libro.</p> </div> <ul style="list-style-type: none"> - Irakaslea - Alfonbra eta kuxinak liburuaren irakurketak gauzatzeko.
Ebaluazioa	<p>Ebaluazio jarraitua eta etengabekoa gauzatu da. Gainera, behaketa bidez aurrera eramango da. Horretarako, koaderno bat izan dezakegu gurekin etengabe jarduerak gauzatzen diren heinean eta hauetan garrantzitsuak diren alderdiak apuntatu. Behatu beharrekoa gorago lehen zehaztutako itemak izango lirateke. Jarduera honetarako behatu daitezkeen item zehatzagoak bestelakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aukeratutako liburuak egokiak eta haien interesekoak izan dira? - Liburuak emozio horiek lantzea ahalbidetu dute? - Haurrek hausnarketetan haien iritzia partekatu dute eta landutakoa bereganatu dutela ikusi da? - ...

3. jarduera: jakiak sentituz

Jarduera	<p>Aurrezagutzak detektatzeko asmoz, Kahoot bat prestatuko dugu. Honi esker, hurrek gaiaren/jardueraren inguruan daukaten ezagutzaz informazio gehiago jasotzeko aukera eskainiko du. Horretarako, zenbait galdera proposatuko dira; adibidez, nongoa da X janaria eta erantzun gisa zenbait aukera emango dira. Hurrez hitz egiten ari garenez, kahoota ahalik eta bisualena egingo da, horretarako, argazkiak, banderinak etab. bezalako materiala erabiliko da. Hau gauzatzeari esker, aurrezagutzak detektatzeaz gain, ludikoa den jarduera dugu zeinak pizgarri moduan ere aritzen den. Hurrek gutxi dakiten janariak izango dira prestatuko direnak, hauetaz gehiago ezagutzeko eta haientzat erronka bat suposatuzeko.</p> <p>Jarduera honetan lehen aipaturiko kultura nagusien janariak garrantzia hartuko dute. Jaki desberdinak prestatuko dira herrialde horietatik tipikoak direnak eta gelara eramango dira. Jarduera interesgarriagoa izateko eta erronka bat izateko, janari hori hurrek prestatu dezakete haien parte-hartzea handiagoa izateko, gainera, familien parte-hartzea eskola</p>
-----------------	--

	<p>komunitatean areagotzeko asmoz, hauek gonbidatu ditzazkegu platerak gauzatzerakoan. Behin janaria gelan daukagula, platerak mahai batean kokatuko ditugu eta haurrak janari bakoitzeko zati bat probatuko du. Jarduera honen bitartez, lurralde ezberdineko janaria gugan eragiten dituen emozioak ezagutzea eta azaleratzean datza. Beraz, janaria probatu ostean, hausnarketa saioa gauzatuko da emozioez aritzeko. Haurrek hauetan hitzen bitartez (terminologia) janari bakoitza nola sentiarazi dien azaleratuko dute, hots, dastamen-papilengatik plazer eta emozio desberdin asko senti daitezke (plazerra, nazka,...).</p>
Denboralizazioa eta espazioa	<p>Hiru saio erabiliko dira jarduera honetarako. Lehenengo saio horretan, Kahoota gauzatuko da, aurrezagutzak detektatzeko asmoz.</p> <p>Bigarren saioan, janaria prestatuko da. Hau, eskolako sukaldean aurrera eramango da eta ordu bat edo ordu eta erdi erabiliko da, aukeratu diren janarien konplexutasunaren arabera.</p> <p>Hirugarren saioan, egun horretan bertan gauzatu behar dena, prestatutako janariak dastatuko dira, ondoren, hauek sorrarazitako sentimenduez aritzeko. Janarien degustazioa jantokian gauzatzea errekomentatzen da, garbitzeko errazagoa delako. Degustazioa ordu erdi batean gauzatuko da, hurrei dena dastatzeko denbora emateko. Ondoren, gelara bueltatuko dira eta asanblada txokoan eragindako emozioez arituko dira. Irakasleak gidaritza papera egin dezake, hurrei hasierako galdera batzuk eginez eta txanden ordena zehaztuz. Hausnarketa 20 minutu inguru emango du, hala ere eta behar izatekotan, denbora luzatu daiteke.</p>
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrezagutzak detektatzeko sortutako kahoota. - Janari horiek prestatzeko erabili beharreko jakiak. Adibidez: azenarioak, espeziak, arrautzak, etab. - Sukalde bat, eskolako sukaldean egin daiteke irakaslearen zaintzapean. - Mahaiak, janariak ipintzeko. - Irakaslea eta beste irakasle bat haurrak bigilatzeko sukaldatzen ari diren bitartean. - Sukaldatzeko materiala: koilarak, labanak, sardexka...
Ebaluazioa	<p>Ebaluazioa behaketa bidez gauzatuko da eta etengabekoa eta jarraitua izango da. Jarduera ebaluatzeko lehen zehazturiko itemak kontuan hartuko dira, orain, jarduera honetarako zehazki behatu beharreko beste alderdi batzuk zehaztuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aukeratutako janariak egokiak izan dira? prestatzeko errazak? - Haur guztiek prestakuntzan eta hausnarketan parte-hartu dute? - Jarduera haurren interesekoa izan da? - Jarduera emozioak lantzea ahalbidetu du? - Haurrek landutako kultura horiekiko errespetua izan dute?

4. jarduera: musikaltasuna eta dantza.

Jarduera	<p>Aurrezagutzen detekzioa jarduera honetan gauzatzeko asmoz, leku ezberdineko musika zati ezberdinak ipiniko dira (5-10 segundu zati bakoitzeko) eta haurrek herrialde bat esan dezatela eskatuko zaie. Dantzarekin berdina gauzatuko da. Horrela, modu azkar batean</p>
-----------------	---

	<p>jakingo dugu hurrek bi alderdi folkloriko hauetaz zenbat dakiten. Jarduerarako pizgarri moduan, gehien gustoko izan duten musika eta dantza zatiak landu daitezke, honi esker gogoekin gauzatuko dute jarduera eta atal motibatzaile gisa jardungo du.</p> <p>Jarduera honetan, kultura ezberdinetako bi alderdi folkloriko landuko dira, emozioekin topo eta hauek ulertzen denbora ematen dugun heinean. Jarduera bi saio desberdinetan banatuko da, batean musikaltasuna landuko da eta beste batean dantza. Lehenengo saio horretan, kultura ezberdinetako musika zati desberdinak ipiniko dira erreproduktorean. Play botoiari eman aurretik, musika zati horren istorio laburra kontatuko da, adibidez, nongoa den eta zein urtetan sortu izan zen. Musika pieza bakoitzaren ondoren, erreproduktorea geldituko dugu eta hurrei paper zati bat emango diegu eta musika horrek haiengan eragin duen emozioa marrazki baten bidez errepresentatzea eskatuko diegu. Jarraibide berdinak segituko dira musika pieza guztiak lantzen eta marrazten diren arte. Amaitzeko, hurrei marraztu dutenaren azalpen edo komentario labur bat egiteko eskatuko zaie (nahi izanez gero).</p> <p>Bigarren saio horretan, musika zatiak dantza zatiengatik ordezkatzeko ditugu. Hortaz, gonbidatutako pertsonak kultura ezberdinetako dantza zatiak errepresentatuko dituzte. Hauen aurretik noski zenbait datu emango dira, lehen bezala, nongoa den eta urtea esan daiteke. Dantzaren zatia errepresentatu ostean, hurrei mugimendu korporalaren bitartez sentitu duten emozio hori errepresentatzea eskatuko zaie. Berdina gauzatuko da dantza zati guztiak gauzatzen diren arte. Amaitzeko, hurrek gauzatu dituzten gorputz mugimenduak azaldu edo komentatzea eskatuko zaie (lehen bezala, nahi izanez gero).</p>
Denboralizazioa eta espazioa	<p>Espazioari dagokionez, bi saioak musika gelan aurrera eramango dira, beharrezkoa den materiala eraman daitekeelako eta zereginak egiteko espazioa dagoelako. Denborari dagokionez, lehenengo saiorako 45 minutu hartuko dugu, marrazkiak presaka eta korrika egin behar ez izateko. Bigarren saiorako, gorputzarekin espresatzearen atala azkarragoa denez 25-30 minutu hartuko dira. Hala ere, edozein saiorako denbora gehiago behar izanez gero, luzatu daiteke. Aurrezagutzak detektatzeko, 5 minutu hartuko dugu eta musika gelan bertan gauzatu daiteke.</p>
Materialak	<ol style="list-style-type: none"> 1. saiorako: <ul style="list-style-type: none"> - Musika erreproduktorea - Kultura ezberdinetako musika zatiak. - Musika zati horien informazio txantiloia. - Margoak. - Orri zuriak. 2. saiorako: <ul style="list-style-type: none"> - Arbel digitala. - Kultura ezberdinetako dantza zatiak. - Dantza zati horien informazio txantiloia.
Ebaluazioa	<p>Ebaluazio jarraitua eta etengabekoa gauzatuko da. Gainera, behaketa bidez aurrera eramango da. Horretarako, koaderno bat izan dezakegu gurekin etengabe jarduerak gauzatzen diren heinean eta hauetan garrantzitsuak diren alderdiak apuntatu. Behatu</p>

	<p>beharrekoa gorago lehen zehaztutako itemak izango lirateke. Jarduera honetarako behatu daitezkeen item zehatzagoak bestelakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Musikaren/dantzaren jatorria eta eman den bestelako informazioa entzun dute? - Marrazki bat gauzatu dute musika zati bakoitzeko? - Marrazkien artean desberdintasunak sumatzen dira edo beti marrazki bera gauzatu dute? - Gorputza erabili dute haien emozioak adierazteko? - Jarduera gustuko izan dute?
--	--

<p>5. jarduera: Antzeztuz norbanakoa errepresentatu.</p>	
<p>Jarduera</p>	<p>Azken jarduera hau, azken produktu gisa erabiliko dugu, hortaz, haurrak ezagutzak bereganatu dituzten edo ez ikusteko balio izango du. Gauzak horrela, ikasitakoa praktikan jarriko dute azken jarduera batean: antzerkia. Gainera, gurasoen laguntza eskatuko da atrezzoaren sorkuntzan laguntzeko. Honi esker, eskola komunitatera hurbiluko gara.</p> <p>Jarduera hau, izenburua adierazten duen moduan, antzerkia izango da. Zenbait antzerki desberdin gauzatuko dira, oinarritzat gai desberdinak dituztenak. Gai hauek lehen proiektuaren helburuetan zehaztutako kulturartekotasunaren inguruan landuko diren horiek dira. Hortaz, ospakizunak, hizkuntzak, erlijioak, janzkerak eta hezkuntza izango dira gure antzerkien gaiak. Antzerki guztiak noski emozioak lantzea izango dute helburu, eremu artistiko dramatikoaren bitartez. Jarduera honetarako saio desberdin zehaztuko dira. 1.saioan, jardueraren aurkezpena gauzatuko da, antzerki bakoitzerako beharrezkoak diren pertsonaiak zehaztu eta nork egingo duen zehaztuko da, antzerkien ordena bai eta gidoia prestatzeko denbora hartuko da ere. Hortaz, kokatzeko saioa dela esango genuke. 2. 3. eta 4. saioak antzerkiak ensaiatzeko erabiliko dira, hau da, hurrek gidoia ikasteko, atrezzo prestatzeko, etab. bezalako gauzak egiteko. Azkenik, 5. saio bat aurrera eramango da antzerkiak berak aurkezteko. Hau, nahi izatekotan, gurasoen aurrean izan daiteke edo eskolako beste umeen aurrean.</p> <p>Emozioak antzerkiaren bitartez landuko dira, dramatizazioaren eskutik. Hots, hurrek pertsona horien azaletan ipini beharko dira, haiekin enpatizatuz eta haiek bizitzen duten hori errepresentatuz. Hortaz, emozioak garrantzia hartuko dute, dagokion momentuan poztasuna, tristura, haserre edo dagokiona errepresentatu beharko dutelako bai aurpegi, gorputza eta hizkuntza (ahotsaren) bitartez.</p> <p>Antzerki desberdinen funtzionamendua zehaztuko da orain:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ospakizunak: Hurrekin adostuko da kultura desberdinetatik (gure autonomia erkidegoan nagusiak diren horietatik) zein ospakizun landuko dira. Behin hauek adostu direla, hauek besteei aurkezteko antzerki bat gauzatuko da. Jarduera errazteko asmoz, nahi izatekotan janzkeren gaiarekin lotu daiteke. Honi esker, ospakizunak lantzerakoan, kultura horrek egunerokotasunean zein egun zehaztutan daramatzen arropak ikusteko aukera eskaintzen du.

	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntzak: ez zaie haurrei hizkuntza desberdinetan hitz egiten eskatuko. Hauen lanketa egiteko modu bat pentsatuko da. - Erlijioak: Kultura horien erlijioak lantzeko antzerkia gauzatuko da. Adibidez, gatazka bat sortu daiteke eta erlijio ezberdinen ikuspuntuak ikusi behar dira, horrela, gatazkan inplikatuak dauden atal guztiak pozik egon daitezke. - Jantzkerak: Ospakizunetan aipatu den moduan, antzerki bateratua egin daiteke. Honetan, kultura horiek egunerokotasunean eta ospakizun zehatzetan eramaten duten arropak ikusteko antzerkia izango da. Izan ere, estereotipoen apurketan lagundu dezake askotan pentsatzen delako kultura batzuk janzkera <i>tipikoak</i> une oro eramaten dituztela. - Hezkuntza: Eszena ezberdinetan kultura ezberdinetan HHko zein LHko hezkuntza eredu desberdinak errepresentatu daitezke. Hemen, irakaslearen papera, haurrek gauzatzen dituzten jarduerak, metodologia, etab. landu daiteke. Norberaren arabera.
Denboralizazioa eta espazioa	<p>Lehenengo saioa, aurkezpenari dagokiona, 20-30 minutu hartuko ditu eta klasean bertan gauzatuko da asanblada txokoan. Bigarren, hirugarren eta laugarren saioak, entseguei dagozkionak, areto nagusia gauzatuko dira. Gainera, ordu bat inguru iraungo du bakoitza, hauek astelehen ostiral eta berriz ere astelehenean gauzatuko dira. Horrela, haurrei ez zaie hain gogor egingo. Azkenik bostgarren saioa, antzerkia berari dagokiona, ordu bat ordu eta erdi hartuko du eta gimnasioan gauzatuko da, guraso edo ikasleek gradetan esertzeko.</p>
Materialak	<ol style="list-style-type: none"> 1. saiorako: ez da material espezifikorik behar. 2. 3. eta 4. saioetarako: <ul style="list-style-type: none"> - Areto nagusia ensaiatzeko. - Norbanakoaren gidoia. - Atrezzoak sortzeko beharrezkoa izango den materiala. Gidoiak zehazterakoan argi azaltzen dena. - Eszenarioa - Kortinak 5. saiorako: <ul style="list-style-type: none"> - Gimnasioa - Atrezzoak prestatuta edukitzea (jantziak, mahiak, liburuak), behar duten horren inguruan - Haurrak - Fokuak edo argiak iluminaziorako. - Eszenarioa - Kortinak

Ebaluazioa	<p>Ebaluazioa jarraitua eta etengabekoa gauzatuko da. Gainera, behaketa bidez aurrera eramango da. Horretarako, koaderno bat izan dezakegu gurekin etengabe jarduerak gauzatzen diren heinean eta hauetan garrantzitsuak diren alderdiak apuntatu. Behatu beharrekoa gorago lehen zehaztutako itemak izango lirateke. Jarduera honetarako behatu daitezkeen item zehatzagoak bestelakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Antzerkia gauzatu dute? - Emozio ezberdinak adierazi dituzte gauzatutako eszenetan? - Jarduerak planteatutako helburuen gaiak lantzea ahalbidetu du? - Kultura hauekiko enpatia garatu dute?
-------------------	--

6. jarduera: Horma-irudia	
Jarduera	<p>Proiektuari amaiera emateko eta ikasitakoa laburbiltzeko asmoz, haurrak horma-irudi bat gauzatuko dute. Jarduera bera sorpresa gisa jardungo du, hots, hurrek ez dute honen inguruan ezer jakingo. Gainera, jardueretan lagundu izan duten familiak jarduerara gonbidatuko ditugu, izan ere, haien ekarpenak funtzezkoak izan dira eta hortaz, haien iritzia jakitea ezinbestekoa da. Manipulatiboa den jarduerari esker, azken produktua lortuko dugu. Hurrek zein familiek honetan nahi dutena irudikatu dezakete: hitzak, marrazkiak, irudiak... Zehazten den gauza bakarra zera da: errepresentatzen dena emozioen ildotik bideratuta egon behar da bai eta gauzatutako jarduerekin erlazionatuta egotea.</p>
Denboralizazioa eta espazioa	<p>Honetarako goiz bat hartuko dugu, hurrek zein familiak honetan aritzeko behar denbora izateko. Espazioari dagokionez, arte gelan gauzatuko da, beharrezkoak diren materialak aurkitzeko.</p>
Materiala	<ul style="list-style-type: none"> - Margoak, errotulagailuak, tenperak... - Horma-irudi tamainako paper bat. - Elementu dekoratiboak.

5. Eranskina. Ikas-egoera.

		Informazioa	Ariketak	Denboralizazioa:
IKAS - EGOERA	SARRERA	Aurrezagutzen detekzioa	1. ariketa: emozioen bingoa	1. astean gauzatuko da eta jarduerarako beharrezkoa den gurpila prestatu aurretik 20 minutu hartuko dira bingoan aritzeko.
			2. ariketa: portadak aztertzea	3. astean gauzatuko da, jarduera honetan zehazten diren liburuak irakurtzeko zehaztuta dagoen astea.
			3. ariketa: kahoot-a	4. astean aurrera eramango da.
			4. ariketa: musika eta dantza ezberdinen jatorrien asmakuntza	5. eta 6. asteetan aurrera eramango dira.
		Motibatzeko pizgarria edo sorpresa	1. ariketa: aurrezagutzak detektatzeko erabiliko den bingoa bera funtzio hau beteko du.	1. astean gauzatuko da, emozioaren bingoekin batera.
			2. ariketa: gurasoak izango dira liburuak irakurriko dituztenak.	3. astean gauzatuko da.
			3. ariketa: Kahootan jolastea eta geroago prestatuko den janaria haien gustokoena izatea. Hots, haiek aukeratuko dituzte gauzatuko diren platerak.	4. astean gauzatuko da.
			4. ariketa: dantzen atalean, adituak diren pertsonak gonbidatuko dira hauek gauzatzeko.	6. astean gauzatuko da, dramatismoaren atala aurrera eramango den saioa.
	5. ariketa: gurasoak ikusle gisa egongo dira.		9. astean gauzatuko da, zehazki, entseguen ondoren antzerkia aurrera eramango den astea.	

		Helburuak ikasleei jakinarazi	Hau, jarduera bakoitzarekin hasi aurretik gauzatuko da. Horretarako, helburuen taula bat sortu izan da jarduera bakoitzean lantzen denaren arabera.	1. astetik 10. astera arte burutuko da.
		Gurasoei laguntza eskatu	1. jarduera: Jarduera honetan ez da gurasoen laguntza beharko.	—
			2. jarduera: Liburuen irakurketa gauzatuko dute.	3. astean aurrera eramango da.
			3. jarduera: Janariak prestatzen lagunduko dute.	4. astean aurrera eramango da.
			4. jarduera: Dantza zati ezberdinak erakustera etorriko dira.	6. astean aurrera eramango da.
			5. jarduera: atrezzoak gauzatzen lagunduko dute.	7. eta 8. asteetan aurrera eramango da.
			6. jarduera: horma-irudia gauzatzera eta honetan parte-hartzera gonbidatuko zaie.	10. astean aurrera eramango da.
GARAPENA		Manipulatiboak diren jarduerak	1. jardueran emozioen gorpila sortzen denean. 3. jardueran janaria prestatzerako unean. 5. jardueran atrezzoak eta materialak prestatzerakoan. 6. jarduera osoa.	Jarduera bakoitza dagokion astean eta egunean gauzatuko da, jada zehaztuta daudenak.
		Sinbolikoak diren jarduerak:	3. jarduera janariak prestatzerakoan, sukaldari rolak hartzen direlako. 4. jarduera osoa gauzatzeko. 5. jardueran antzerkia gauzatzeko, paper ezberdinak errepresentatuz eta hauen azaletan ipiniz.	

		Autonomoak diren jarduerak:	1. jarduera 3. jarduera 4. jarduera 5. jarduera 6. jarduera	
		Esperimentatzeko diren jarduerak:	1. jardueraren emozioen bingoa, hots, esperimentatzen eta entsegu-errorearen bitertez jardungo dute. 3. jardueran kahotta gauzatzean. 4. jarduera. Haurrak haien sentimendu eta gorputzarekin kontaktuan ipiniko ditugu.	
	BUKAERA	Ikasitakoa laburbildu	Hau gauzatzeko, 6. jarduera baliogarria egingo zaigu, hots, horma-irudi baten sorkuntza proposatzen du zeinetan haurrek prozesuan zehar ikasi duten hori islatu dezakete.	10. astean aurrera eramango da. Behin jarduera guztiak amaituta daudela eta antzerkia gauzatu dela.
		Ikasitakoa erabili/praktikan jarri	Horretarako 5. ariketa erabiliko da, izan ere, haurrek antzerki bat gauzatuko dute zeinetan ikasitako	9. astean antzerkia aurrera eramango da.
		Ebaluazioa: jarraia + ebaluazio errubrika	Ebaluazio jarraia gauzatu da haurrak behaketa aktiboaz jarraituz. Proiektuaren amaieran, ebaluazio errubrika begiratuko da ikasle bakoitzaren ebaluazioa betetzeko.	1. astetik 10.astera arte gauzatu da, haurrak etengabe behatzen diren heinean informazioa biltzeko asmoz.

6. Eranskina. Hezkuntza Premia Bereziak. Moldaketak eta aholkuak.

Proiektuaren atal honetan, Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) hitz egingo da. Izan ere, geletan ematen den atal garrantzitsu bat dugu eta zailtasun hauek dituzten haurrei hezkuntza erantzun egokia ere eman behar zaie. Hurrengo paragrafoetan azalduko diren HPBak, ohikoenak diren arren, egia da hauen detekzioa Lehen Hezkuntzan edota hezkuntza maila gorenetan gauzatu egiten dela. Haur Hezkuntzan, hauen detekzioaz ezin da hitz egin, hala ere, bost urteko gelan egonda zenbait alerta adierazle ikusi daitezke. Horregatik, proiektua haur horiekin gauzatzeko eta horiei laguntzeko asmoz, lagungarriak izan daitezkeen aholkuak eskaintzen dira. Bai eta lagungarria izan daitekeen terminologiaren inguruan pixka bat ezagutzea ere.

Horretarako, diseinatutako *Elkarlanetik ikasiz* proiektuari zenbait moldaketa egingo zaizkio Pascual-Sevillano, García Rodríguez eta Vazquez-Canok (2019) haien lanean zehazten duten moduan HPB nagusiak bestelakoak dira: ikaskuntza zailtasunak (%55,2a); garapenaren nahasmendu orokorra (%25.9 a) eta Arreta Gabezia Hiperaktibitatearekin Nahastea (AGHN) (%24,9a). Noski, geletan HPB gehiago ikusi ahal direla baina moldaketak egiteko nagusietan zentratuko gara.

Moldaketak zein zailtasun edo nahasmenduari egin behar zaizkien jakinda, proiektua haur hauekin nola landu daitekeen azalduko da. Izan ere, argi geratu behar da HPB bakoitza desberdina dela eta haur bakoitzak ere laguntza desberdinak behar izago dituela (Pascual-Sevillano et al., 2019). Lehenik eta behin ikaskuntza zailtasunetaz arituko da eta hau ulertzeko bidean, garrantzitsua da aipatzea hiru direla ikaskuntza zailtasunak: dislexia, disgrafia eta discalculia. Ohikoena dislexia da, hau arazo neurobiologiko batekin lotuta dago, hots irakurketaren irakurketa egitearen ezintasuna da, izan ere, pertsona hauek egiturazko nahasmenduak izaten dituzte soinuak, fonemak eta ikusizko zenbait zeregin prozesatzen direnean (Galaburda eta Cestnick, 2003).

Zailtasun hau duten pertsonen laguntzeko asmoz, badaude estrategia ezberdinak. Hasteko, haur hauekin material manipulatioa erabiltzea proposatzen da, gauzak horrela, proposatzen diren jardueran ia guztiak manipulatioak dira beraz haurrek arazo gabe gauzatu ahal dituzte beste gelakideekin integratuz. Horrez gain, haurren autoestimua babestea eta alderdi emozionala lantzea proposatzen da haur hauekin lan egiterakoan. Hori horrela, gauzatutako proposamen osoa kulturartekotasuna lantzeaz gain, hezkuntza emozionala lantzea ere du helburu. Beraz, alderdi hau lantzeaz gain, haiek beraiek honetan trebatu daitezke. Azkenik aipatzen den esku-hartze laguntza, familien inplikazioa bilatzea da,

haurrek segurtasun hori izateko asmoz. Diseinatutako proposamenean familien implikazio aktiboa bilatzen da, eskola komunitatera hurbiltzeko bidean. Hortaz, ondorioztatu daiteke diseinatutako proposamena ikaskuntza zailtasunak dituzten haurrentzat egokia dela, izan ere, haur hauek behar duten esku-hartzea jada proiektuan inplementatua dagoelako.

Bestetik, garapenaren nahasmendu orokorra dugu. Hau, asaldura neuropsikiatrikoen multzo bat da, larritasun aldakorrekoa, eta adimenari, hizkuntzari, portaerari eta sozializatzeko gaitasunari eragiten die nagusiki (Palacios Jorge, 2011). Nahaste hau pairatzen duten haurrei laguntzeko asmoz, zenbait alderdi kontuan hartu daitezke, hala nola, ikasle hauek motibatzea haien neurrian garapenean aurrera egin dezatela. Horretarako, haiengan konfiantza ipintzea gomendatzen da jarduerak gauzatu aurretik, gaineramotibatzeko pizgarriak haur hauekin oso ondo etorriko dira haien interesa arrapatzeko. Horrez gain, esku-hartze gisa gomendatzen da akatsik gabeko ikaskuntza erabiltzea, gauzak horrela, jarduerak eta lortu beharreko helburuak haur bakoitzaren garapen mailara egokitutak egongo litzateke. Beraz, norberak bere gaitasunen arabera trebatuko litzateke. Horregatik, diseinatutako proiektua nashatea daukaten haurrentzat ere eramangarria da, aurrezagutzak detektatzerakoan berdina da ondo ez gauzatzea, haurra non kokatzen den soilik ikusteko balio dutelako. Ondoren, jarduera guztiak manipulatioak dira eta ez dago txarto gauzatzeko modurik, haur bakoitza bere neurri moldatzen duelako eta ailegatzten den lekuraino gauzatu dituen haurrak ez baitira behartzen. Jarraitzeko, haur hauekin gauzatu beharreko beste alderdi bat limiteak dira, izan ere, mugak ezarri behar dira kontingentzia argi eta ulergarriekin. Hau, helburuak azaltzerakoan gauzatu daiteke, beharrezkoa izanez gero, haurrekin batera arau-zerrenda bat sortu daiteke proiektuarekin hasi aurretik.

Bestetik, jarduerari zentzua ematea garrantzitsua da, hots, haur hauek jarduera hauek gauzatzeko ekartzen dizkien onurak ulertu behar dute. Horren ildotik, egituraketa bat jarraitu behar dute, beraz, jarduerak jarraipen bat izan behar dute. Azkenik, komunikazioaz aritu beharra dago; horretarako seinaleak, keinuak, eta komunikazio sistema alternatiboak erabiliko dira (Palacios Jorge, 2011). Gauzak horrela, diseinatutako jarduerak nahiko eramangarriak dira, manipulatioak direlako eta komunikatzeko bestelako bideak erabiltzen dituelako (mugimendua, marrazkiak, janaria...). Hala ere, beharrezkoa izanez gero, espezialista bat bilatuko litzateke liburuen irakurketarako, horrela, haur hauek ere ulertzen dutelaz ziurtatzen gara.

Azkenik aritu beharreko Hezkuntza Premia Berezia AGHNa daukagu. Laburki azalduta, jatorri neuro-biologikoa duen nahastea da eta hiru sintoma ezberdinekin ager

daiteke: arreta falta, hiperaktibitatea eta inpulsibitatea (Esperón eta Suárez, 2007). Haur hauek laguntzeko asmoz, hauek dira abian jarri daitezkeen estrategiak: haurra irakasletik gertu kokatu, arreta gal ez dezan. Bere arreta bilatzeko eta mantentzeko asmoz, informazioa helarazteko modu desberdinak bilatu adibidez arbelean jarduerarekin erlazionatzen diren marrazkiak egin. Horrez gain, manipulatioak eta mugimendua eskatzen duten jarduerak eskaintzea.

Beraz, *Elkarlanetik proiektua* hartuz, moldaketak lehenengo bi jardueretan gauzatu beharko lirateke (emozioen gorpila eta liburuak), izan ere, beste jarduerak manipulatioak dira eta mugimendua eskatzen dute. Lehenengo jarduerarako haur hauekin bestelakoa proposatzen da: jarduera gauzatzen lehenengoa izatea, honi esker, haurra parte hartuko luke eta zenbait emozio ezagutzeko aukera izango zuen. Nekatzen denean beste jarduera batean aritzen utziko zaio errefortzu irakaslearekin. Hau adibidez, emozioen puzzle bat izan daiteke, haurarentzat manipulatioa den materiala dugu eta erronka bat suposatzen du. Emozioen gaia landuko luke baina beste jarduera baten bitartez. Liburuei dagokionez, haur hauek ezin dira eserita egon, liburu desberdinek nola irakurtzen dieten entzuten duten bitartean. Hortaz, aukeratutako liburuak helarazten duten mezua eta edukiak transmititzeko beste modu bat bilatuko da. Horretarako, irakaslea edo espezialista haur hori hartuko du eta rol playing bat gauzatuz, objektu desberdinekin liburuaren historia kontatuko dio bere laguntzaz. Modu honetan, historia jakingo du baina modu mugituago eta dibertigarriago batean. Liburuak luzeak direnez, kontzeptu gakoak hartuko dira haur hauek zenbait kontzeptu ikas dezaten.

7. Eranskina. Ebaluazio errubrikaren taula.

EBALUAZIO ERRUBRIKA						
Proiektuaren Oinarrizko Gaitasunak	Ikaskuntza-Eraitzak	Ebaluazio Irizpideak	Lorpen-Maila			
			Ikaskuntza eskasa-1	Oinarrizko ikaskuntza-2	Ikaskuntza aurreratua-3	Aditu mailako ikaskuntza-4
OG ₁ . 4-5 urteko haurrek hezkuntza emozionalari dagokioneko beharrezkoak diren gaitasunak bereganatzea. Hots, etapa horretan izan beharreko nolakotasunak eta ezaugarriak aztertu (Terminologia, adibideak, erregulazio emozionala, enpatia, emozioak azaleratu...)	IE ₁ . Hezkuntza emozionalaren inguruan ezagutzak bereganatu ditu bai eta emozio desberdinen identifikazioa gauzatzeko gai da.	EI ₁ . Eduki garrantzitsuen identifikazioa.	Eduki eta termino garrantzitsuenak ez ditu identifikatzen.	Identifikatutako eduki eta termino batzuk ez dira egokiak.	Identifikatutako eduki eta termino gehienak egokiak dira.	Identifikatutako eduki eta termino guztiak egokiak dira.
		EI ₂ . Eduki kantitatea hitz egiterako orduan. Hau da, erabilera.	Eduki eta termino ugari ez ditu erabiltzen.	Eduki eta termino nahiko erabiltzen ditu.	Eduki eta termino gehienak erabiltzen ditu.	Eduki eta termino guztiak erabiltzen ditu.
	IE ₂ . Gauzatu beharreko emozioaren inguruan adibideak emateko gai izan da.	EI ₃ . Gauzatu beharreko emozioaren inguruko adibide aukeraketa.	Emozioaren arabera eman behar duen adibidea xumea da. Ez du ia sentzurik eta amaitugabea ematen du.	Emozioaren arabera eman behar duen adibidea nahiko egokia da. Beti ere ez dute zentzu osorik.	Emozioaren arabera eman behar duen adibidea egokia da. Hala ere, zentzu hobea eman ahal zaio.	Emozioaren arabera eman behar duen adibidea heldutasuna erakusten du adinarako. Zentzu osoa dauka eta egoerara moldatua dago.
	IE ₃ . Hezkuntza emozionalari eta emozioei buruzko kontzeptuak, metodoak eta teknikak ulertzeko/esperimentatzeko gaitasuna bereganatzen hasi da.	EI ₄ . Hezkuntza emozionalari eta emozioei buruzko kontzeptu, metodo eta tekniken ulermena eta esperimentazio.	Hezkuntza emozionalari zein emozioei dagozkien kontzeptu, metodo eta teknika egokiak ez ditu ulertzen eta esperimentatzen.	Hezkuntza emozionalari zein emozioei dagozkien kontzeptu, metodo eta teknika nahiko ulertu eta esperimentatzen ditu.	Hezkuntza emozionalari zein emozioei dagozkien kontzeptu, metodo eta teknika gehienak ulertzen eta esperimentatzen ditu.	Hezkuntza emozionalari zein emozioei dagozkien kontzeptu, metodo eta teknika egoki guztiak ulertzen eta esperimentatzen ditu.
	IE ₄ . Haurrek gauzatu beharreko hausnarketa saioetan haien iritziak partekatzeko gai izan dira. Izan ere, landutako alderdiak (identifikazioa, alderdi folklorikoak, kultura ezberdinen inguruko jakintzak, etab.) bereganatu dituztela erakusten dute.	EI ₅ . Haurrek gauzatu beharreko hausnarketa saioetan iritziak partekatu dituzte.	Haurrek gauzatu beharreko hausnarketa saioetan ez dituzte haien iritziak partekatu. Isilik geratu dira hauek gauzatzean.	Haurrek gauzatu beharreko hausnarketa saioetan haien iritziak partekatu dituzte ekarpen xumeak eginez.	Haurrek gauzatu beharreko hausnarketa saioetan haien iritziak partekatu dituzte ekarpen desberdinak eginez.	Haurrek gauzatu beharreko hausnarketa saioetan haien iritziak partekatu dituzte ekarpen desberdinak eginez. Gainera, haien ikaskideen ideiak entzun eta haien hausnarketak konplementatzeko erabili dituzte.
OG ₂ . Proiektuaren erabilera eta funtzionaltasunari dagokionez, haurren garapenerako egokia den proiektua diseinatu da zeinak haurren eta helduen arteko elkarrekin sustatzeko eta ohiturak sustatzeko (autonomia, askatasuna, jakin-mina, behaketa, esperimentazioa, arauen sozialen onarpena, eta jolasa) aukera eskaintzen duen.	IE ₄ . Haurren gaitasunetan oinarriturik, hezkuntza-proposamen egokia aztertu eta sortu da.	EI ₆ . Diseinuaren garapena.	Sortutako hezkuntza-proposamenak diseinu xumea erakusten du.	Sortutako hezkuntza-proposamenaren diseinua nahiko garatuta dago.	Sortutako hezkuntza-proposamenaren diseinuaren alderdi gehienak garatuta daude.	Sortuta hezkuntza-proposamenaren diseinua gutziz garatuta dago, zehaztasun handiz.
		EI ₇ . Diseinuaren koherentzia.	Sortutako hezkuntza-proposamena haurren gaitasun emozional nagusietan ez dago oinarrituta eta ekarpen xumeak ditu.	Sortutako hezkuntza-proposamena haurren gaitasun emozional nagusien alderdi batzuk besterik ez ditu jorratzen.	Sortutako hezkuntza-proposamena haurren gaitasun emozional nagusien alderdi gehienak jorratzen ditu.	Sortutako hezkuntza-proposamena haurren gaitasun emozional nagusien alderdi guztiak egoki jorratzen ditu.
	IE ₅ . Haurren erritmo, ezaugarri eta trebetasunen araberako hezkuntza-jarduerak egokiak sortu dira, hots, haur guztien garapen integrala ahalbidetzen da.	EI ₈ . Norbanako eta taldeko ahalmen eta mugen araberako hezkuntza-jardueren egokitasuna dago proposamenetan zehar.	Hezkuntza-jardueretan eginiko egokitzapenek ez diete norbanako eta taldeko ahalmen eta mugei moldatzen eta erantzuten.	Hezkuntza-jardueretan eginiko egokitzapenek norbanako eta taldeko ahalmen eta mugei nahiko moldatu eta erantzuten diete.	Hezkuntza-jardueretan eginiko egokitzapen gehienek norbanako eta taldeko ahalmen eta mugei moldatu eta erantzuten diete.	Hezkuntza-jardueretan eginiko egokitzapen guztiak norbanako eta taldeko ahalmen eta mugei egoki moldatu eta erantzuten diete.
	IE ₆ . Haurrek haien trebetasun emozionalak eta autonomian trebatzen	EI ₉ . Haurra trebetasun emozionaletan trebatzen da.	Haurra trebetasun emozionaletan gutxi trebatzen da. Ez du	Haurra trebetasun emozionaletan trebatzen hasi da.	Haurra trebetasun emozionaletan trebatzen da. Hauekin	Haurra trebetasun emozionaletan bikain trebatzen da.

	dira. Izan ere, euren arteko harremanen bitartez gaitasun emozional ezberdinak garatzen dituzte.		hauekin ia esperimentatzen.	Esperimentazioa nabarmentzen hasi da.	esperimentazio aktiboa gauzatzen du.		
		El ₁₀ . Haurra autonomia pertsonalean trebatzen da.	Haurra jarduerak gauzatzekoan autonomia gutxirekin jarduten du.	Haurra jarduerak gauzatzekoan autonomia pixka batekin jarduten du.	Haurra jarduerak gauzatzekoan autonomiarekin jarduten du.	Haurra jarduerak gauzatzekoan autonomiarekin jarduten du. Gainera, gero eta paper handiagoak hartzen hasia da.	
		El ₁₁ . Haurra beste gelakideekin erlazionatzen da alderdi emozionalean trebatzea ahalbidetzen diona.	Haurra ez da beste gelakideekin erlazionatzen. Gainera, ez ditu saiakerarik egiten.	Haurra ez da beste gelakideekin asko erlazionatzen baina saiakerarik egiten hasi da.	Haurra beste gelakideekin erlazionatzen da baina alderdi emozionalean oraindik gutxi trebatzen da.	Haurra beste gelakideekin bikain erlazionatzen da eta horrek alderdi emozionalean trebatzen laguntzen dio.	
OG₃. Kulturartekotasun ari eta bizikidetzari dagokion atalari dagokionez, haurrek honen inguruko jakintza bereganatu dute (lurralde ezberdinen janariak ezagutu, musika eta dantza estilo ezberdinetaz jakintza areagotu, ospakizun desberdinen inguruan ikasi...).	IE ₇ . Haurrek kultura ezberdinekiko errespetua garatzen dute. Hots, hauen inguruko informazio gehiago jaso ostean, haiena ez den beste kulturekin enpatizatze eta hauek errespetatzeko gaitasuna eskuratu dute.	El ₁₃ . Haiena ez den kulturak ezagutu dituzte.	Berarena ez den kulturak ezagutzeko ez du ahaleginik egin ezta interesik erakutsi.	Berarena ez den kulturak ezagutzeko ahalegin gutxi egin du, hots, interes pixka bat erakutsi du.	Berarena ez den kulturak ezagutzeko ahalegina egin du, hots, interesa erakutsi du.	Berarena ez den kulturak ezagutzeko ahalegin handia egin du, hots, interes asko erakutsi du gaiaren inguruan gehiago jakiteko asmoz..	
		El ₁₄ . Kultura ezberdinekiko errespetua garatu dute.	Ez du kultura ezberdinekiko errespetua garatu.	Kultura ezberdinekiko errespetu pixka bat garatu du.	Kultura ezberdinekiko errespetua garatu du.	Kultura ezberdinekiko errespetua garatu du.	Kultura ezberdinekiko errespetu asko garatu du.
		El ₁₅ . Enpatia emozioa sentitzeko gai dira kulturartekotasunari dagokionean.	Ez da gai kulturartekotasunari dagokionean enpatizatze.	Kulturartekotasunari dagokionean gutxi enpatizatze gai da.	Kulturartekotasunari dagokionean gutxi enpatizatze gai da.	Kulturartekotasunari dagokionean enpatizatze gai da.	Kulturartekotasunari dagokionean asko enpatizatze gai da.
	IE ₈ . Haurrek kultura ezberdinekiko pertsonekin harremanetarako beharrezko gaitasunak garatu dituzte.	El ₁₆ . Baliabide desberdinak ikasi egin ditu harreman sozialei dagokionean.	Baliabide gutxi ikasi egin ditu harreman sozialean aritzea zailtzen diona.	Baliabide nahiko ikasi egin ditu harreman sozialean aritzen laguntzen diotenak.	Baliabide gehienak ikasi egin ditu harreman sozialean aritzen laguntzen diotenak.	Baliabide guztiak ikasi egin ditu harreman sozialean aritzen laguntzen diotenak.	Baliabide guztiak ikasi egin ditu harreman sozialean aritzen laguntzen diotenak.
		El ₁₇ . Kultura ezberdinekiko pertsonekin erlazionatzearen onuraz eta jakintzaz kontziente dira.	Kultura ezberdinekiko pertsonekin erlazionatzearen onuraz ez da kontziente.	Kultura ezberdinekiko pertsonekin erlazionatzearen onuraz gutxi kontziente da.	Kultura ezberdinekiko pertsonekin erlazionatzearen onuraz gutxi kontziente da.	Kultura ezberdinekiko pertsonekin erlazionatzearen onuraz nahiko kontziente da.	Kultura ezberdinekiko pertsonekin erlazionatzearen onuraz guztiz kontziente da.
	IE ₉ . Taldeko zereginetan arduratsu jokatu eta talde-dinamiken inguruan hausnartzen du, elkarlana sustatzeko.	El ₁₈ . Taldeko zereginetan, beste pertsonen ekarpenak osatzeko gaitasuna.	Taldeko zereginetan ez ditu beste pertsonen ekarpenak osatzen.	Taldeko zereginetan beste pertsonen ekarpenak gutxi osatzen ditu.	Taldeko zereginetan beste pertsonen ekarpenak osatzen ditu.	Taldeko zereginetan beste pertsonen ekarpenak osatzen ditu.	Taldeko zereginetan beste pertsonen ekarpenak guttiz osatzen ditu.
		El ₁₉ . Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan autokritika justifikatua egiteko gaitasuna.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan ez du gaitasun kritikorik erakusten, ezta bere iritzia eta ekarpena justifikatzeko gaitasunik ere.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan gaitasun kritikoa erakusten du, bere iritzia eta ekarpena azaletik justifikatzen duen arren.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan gaitasun kritikoa erakusten du. Hobeto argudiatu eta justifikatu litzake bere iritzia eta egindako ekarpena.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan gaitasun kritikoa erakusten du. Hobeto argudiatu eta justifikatu litzake bere iritzia eta egindako ekarpena.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan heldutasun maila handiko gaitasun kritikoa erakusten du. Behar bezala arrazoituta eta justifikatuta daude.
		El ₂₀ . Taldeko eta norbanako prozesuak aurrera eramateko autonomia eta ardura.	Taldeko eta norbanako prozesuak ez ditu modu arduratsuan eta autonomoan garatzen.	Autonomia eta ardura nahikoa erakusten du taldeko eta norbanako prozesuak gauzatzen.	Oro har, taldeko eta norbanako prozesuen inguruan ardura eta autonomia erakusten badu ere, prozesuan zehar gidatua izatea bilatzen du.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan heldutasun maila handiko autonomia eta ardura erakusten du.	Taldeko eta norbanako prozesuen inguruan heldutasun maila handiko autonomia eta ardura erakusten du.